

## 6. (1380-1390)





Kapitulu honetan lehen aldiz Zestoari buruzko agiri osoak azaltzen dira. 1380. urteko bi agiri garrantzitsu daude, eta, geroxeago, 1383. urteko Zestoako hirigutuna dugu, hau ere lehen mailakoa, garrantzia kontuan hartuta. Hortik aurrera gero eta ugariago dira albisteak, eta hemen urtez urte sailkatuta emango ditugu ordena kronologikoari jarraituz. Agirien zehaztasu-

nak azkeneko “Agiritegia” izeneko atalean emango ditugu, eta bertan, dagokionean, testuaren transkripzioa ere argitaratuko dugu. Libururen batean argitaratu delako transkripziorik ipini ez dugunean, delako agiriaren laburpena emango dugu euskaraz, bertan erabiltako onomastikarekin batera, eta, dagokionean, transkripzioa non argitaratu den ere jakinaraziko dugu.

## 6.1. 1380. URTEA

### 6.1.1. Bi agiri garrantzitsu

Zestoako Udaleko artxiboan 1380. urteko otsailaren 9an idatzitako bi agiri daude<sup>1</sup>. Lehenengoan Azpeitiko hiribilduak Aizarna, Akoa eta Zestoako “kolazioekin” (Iraetako jaunaren izenean ere joan ziren hauek) ituna sinatu zuen Agiretako eta Ariako saroiaren ustiapena arautzeko. Agiri honen (eta bigarrenaren) data zalantzarik gabe esan daiteke 1380. urtekoa dela, eta ez 1384koa, inoiz argitaratu denez<sup>2</sup>; izan ere testuan Zestoa “kolazio” edo etxe sakabanatuko auzune moduan azaltzen da, eta ez hiribildu gisa. 1384. urtean, ordea, Zestoa hiribildu zen (1383. urteaz gero), eta agiriak ez luke Zestoa kolazio dela esango<sup>3</sup>. Zuzen ohartu zen horretaz Elena Barrena historialaria, kolazio edo landa-auzune ez lukeela behar zioenean<sup>4</sup>. 1380-II-9ko lehen agiriaren xehetasunak “Agiritegia” deitutako atalean [XIV. m. 3] izenburuko agirian ematen dira, eta bigarrenarenak [XIV. m. 4] agirian.

Joan Perez Otorakoa Azpeitiko eskribauak eta Joan Fernandez Bitoriakoa Getariako eskribauak idatzitako bi agiri horietan datu interesgarriak daude, inola ere. Aizarna, Akoa eta Zestoa biztanle-guneak baziren, eta Iraeta oinetxe gisa azaltzen zaigu, bertako Joan Beltran ahaide nagusi eta guzti. Ez zuten artean hiribildurik; beraz, alkaterik ere ez, baina Antso Sorazabal zinegotzia bazuten, hau da, bozketa eginda hautaturiko ordezkaria bazeukaten.

Bi agiri horiek Izarrizpen eginak direla diote, baina leku-izen horrek lurralde zabalegia adierazten

du, eta gure ustez, zehatzago esanda, Azpeitiaren eta Zestoaren arteko mugan edo mugatik hurbil bildu ziren. Zorrozpen idatzi ote zituzten bi agiriak?

Agiretako eta Ariako saroiak zituzten auzitan. Azpeitiarrek ziotenez, Agiretako saroiak 12 gorabilekoa zen, eta zestoarren iritziz sei gorabilekoa. Gorabila saroiaren erradioa neurtzeko unitatea zen. Ariako saroiak, berriz, zestoarentzat 12 gorabilekoa zen, eta azpeitiarren ustetan seikoa.

Agiretaren kokalekua zein den nahiko seguru esan daiteke: oraingo Agieta edo “Agitta” da. 1385eko beste agiri batean “Aguirreta” forma du<sup>1</sup>, baina askoz geroago beste forma batzuk azaltzen dira: “Aguieta” 1811n eta “Agiretaurrea” 1835ean<sup>5</sup>. Dena den, hizkuntzalariek dute azken hitza, baina gure ustez “Agireta” hori “Agin+eta = Agireta” eginda sortua da.

Ariako saroiak non zegoen jakitea zailagoa da. Muinoa zela dio agiriak, eta Zestoa eta Azpeitiaren arteko muga samarrean beharko zuen. Gure ustez orain “Mariazalla” edo “Mariasaila” deitzen den leku-izena da antzekoena<sup>5</sup>. Mugakide hauek ditu “Mariasaila” deitutakoak: San Bizente baserria iparraldean, Etorra ekialdean eta erreka hegoaldean eta mendebaldean<sup>6</sup>. San Bizente baserriaren hegoaldera maldan behera Lizardi erreka aldean Gorostiola eta Barrutizarra ingurukoa izan daiteke. Beraz, Mariasaila erreka ondoan badago, Aria izeneko muinoa oraingo Iruitta edo Idoieta baserria dagoen gaina izan daiteke.



6.1. irudia. Agireta edo Agittako errota berria.

Bi agiri hauetan zenbait leku-izen interesgarri azaltzen da: “Vrdinarana” iturria, adibidez. “Urdanarana” izan daitekeela iruditzen zaigu; izan ere, inguru horretan geroxeago, 1385-VII-18ko beste agiri batean “Vrdanolaeta” azaltzen baita<sup>1</sup>. Beraz, Zestoan garai hartan garrantzitsuak ziren urde edo txerriak bertako abelazkuntzan eta ekonomian.

“Vungoyen” edo Vringoyen” eta “Hurrutia” dira beste leku-izen batzuk, baina horiek non ziren ez dakigu. Seguru asko Azpeitiko partean, agiriak Iza-

rrizpen gora daudela dioelako.

Bestalde, orain arte aipatu ez ditugun eta Zestoa-koak diren leku-izen batzuk lehen aldiz azaldu zaizkigu delako bi agiri hauetan: “Çeçenarro” (oraingo Ezenarro), “Elaçaua” (Olazabal), “Apategui” (Apategi), “Soroçaua” (Sorozabal edo Sorazabal), “Reçaua” (Erretzabal), “Olascoaga” (ez dakigu Olaskoaga honen kokalekua zein zen), “Hetorra” (Etorra)<sup>7</sup>, “Ayçarnauea” (Aizarnabea edo Aizarnatea?) eta “Ibiatayz” (Ibiakaitz edo Idiakaitz).

6.2. irudia. Etorrazar baserria.



Bide batez, azpimarratzekoa iruditzen zaigu bi agiri hauetan “Lehete”, “Lohiola” eta Yraheta” formak “h” eta guzti azaltzea. Behin eta berriz agertzen dira antzeko formak, “h” bidez bokal arteko hiatoa markatuz, Gipuzkoako herriei dagozkien eta XIV eta XV. mendeetakoak diren agirietan. “Zuhube” eta “Arbehe” formak, adibidez, Zestoan maiz azaltzen dira. Beraz, “h” hori Gipuzkoan aipatutako mendeetan ahoskatu egiten zela esateko argudioak badaude.

Aipatzekoa da, halaber, garai hartan pertsonak identifikatzeko erabiltzen zuten sistema. “Martín Yuannez d’Acoa” idazten zuten, adibidez; hau da, Martin zen gizonaren izena, Iban edo Joanen semea (Yuannez patronimikoak hori adierazten du) eta Akoa etxekoa zen. Gehienetan etxeak ematen zion pertsonari deitura. Geroztik Gipuzkoan Martin Akoa forma soila erabiltzen da, erdiko Ibañez edo patronimikoa galdua. Araban gorde egin dute, ordea, eta, ondorioz, Joan Martinez Lizarduikoa eta antzeko izen-deitura luzeagoak dituzte.

Esan beharra dago, bestalde, agiri hauetan emakumeen izenik ez dela aipatzen, zeren eta Udaleko arazoetan ez baitzuten, ez ahotsik eta ez botorik.

### 6.1.2. Iraeta eta Ahaide Nagusiak

1380. urteko bi agiri hauetan Iraetako oinetxea eta bertako jauna aipatzen dira: “...e en uyos (e) en nonbre de (Io)h(an) Ueltran d’Iraeta e de los fijosdalgo del solar d’Iraeta, de la otra parte.” Joan Beltran I.a Iraeta dugu, beraz, Ahaide Nagusi, eta, gure ustez, hamazazpi urte lehenago 1363. urteko uztailean Gaztelako Pedro I.a erregeak azpeitiarren alde emandako epai batean aipatzen den “Iuan Beltran de Yraheta” (sic) bera da<sup>8</sup>. Iraetako jaun hura fidatzaile zen auzi batean. Beraz, bere mende zituen oinetxeko “hijosdalgo” edo kapareak. Beste era batera esanda, bere taldea gidatzen zuen, soldadu eta guzti.

### 6.3. irudia. Iraetako Nagusikoa etxea.



Hortxe dugu, beraz, Iraetako lehen Ahaide Nagusi ezaguna. Gipuzkoan jauntxoek leinu garrantzitsuenak bi bandotan bananduta zeuden. Ganboatarrak ziren batzuk, eta oñaztarrak besteak. Ahaide Nagusi ganboatarrak hauek ziren: Olasokoa Elgoibarren, Gebarakoa Oñatin, Baldakoa Azkoitian, Iraetakoa Zestean, Atxagakoa Usurbilen, Zarautz etxekoa Zarautzen, Ugartekoa Oiartzunen, Sasiola-Irarrabalgoa Deban, Zumaiakoa, Jaolatzakoa (Elgetan) eta Zegamakoa. Kostaldean eta Deba zein Urolaren arroetan finkaturik zeuden.

Oñaztarren ordezkari nabarmenak, berriz, hauek ziren: Lazkaokoa (bandoko buru zen eta Gipuzkoako aberatsena ere bai), Amezketakoa, Berastegikoa eta Igartzakoa (Beasainen) Nafarroako muga; Altzagakoa (Hernanin), Leizaurkoa (Andoainen), Murgiakoa (Astigarragan) eta San Miliangoa (Zizurkilen) Donostia inguruan; Loiolakoa eta Enparangoa (Azpeitian); Arriarangoa (Beasainen), Agirrekoa (Gabirian), Zeraingoa eta Ozaetakoa (Bergaran), Gabiriakoa (Bergaran); eta Untzuetakoa (Eibarren)

Bizkaiko muga<sup>9</sup>. Talde batekoek ez zuten beste taldekoen kaletik ibili nahi izaten. Txapela, berriz, oñaztarrek eskuin aldera jantzita erabiltzen zuten, eta ganboatarrek esker aldera jantzita<sup>10</sup>.

Ahaide Nagusiek maiz hartzen zituzten beren mende eta babespean gaizkile eta lapurrak, haiekin borrokara joan zitezten. Gaizkile haietako asko Nafarroako muga aritzen ziren, eta haietako bat zen 1380. urtean Nafarroako Mendialdeko Otxoa Urtubia merioak atxilotutako Rodrigo “Beltza” gipuzkoarra. Lepoa moztu eta burua Iruñera eraman zuen merioak<sup>9</sup>.

### 6.1.3. Aizarna, Eliza eta beste zenbait

Kapitulu honetan behin eta berriz aipatu ditugun bi agirietan Aizarna, Akoa eta Zestoako kolazioak azaldu zaizkigu, baina parrokia Aizarnan baino ez zegoen, hiru urte geroagoko Zestoako hiri-gutunean (1383-IX-15ekoan) azaltzen denez. Bertan “... los ffiijosdalgo e omes buenos de la parrochia de Santa Maria d’Axarna...” argi eta garbi esaten da<sup>1</sup>.




---

6.4. irudia. Aizarnako plaza eta eliza.

Beraz, 1380. urtean Aizarnan zegoen orduko Zestoari zegokion parrokia bakarra; izan ere, Zestoako hirigunekoa hiribildua eraiki ondoren egin zuten. Aizarnako parrokiak beti “erretorea” izan du buru, eta Zestoakoak “bikarioa”.

Iruñeko elizbarrutikoak ziren Gipuzkoako lur gehienak 1380. urtean, eta bertako elizei bisita egiteko eskubidea zuen Iruñeko apezpikuak. Denboran zehar apezpikuak, eskubide hura zela eta, diru kopuru bat jasotzen zuen zerga gisa. Batzuetan zerga, ordea, handi samarra zen, eta, ondorioz, elkarren ondoko zenbait parrokia “corredium”etan biltzen ziren. Zerga urtero ordaindu behar izaten zuten. XIV. mendean sortu ziren Gipuzkoako “corredium”ak.

Iruñeko apezpikuari hamar “corredium”ek ordaintzen zioten Gipuzkoan. Haietako bat Getariakoa zen, berekin batera hauek ere izanik: “Cumaya (Zumaia), Carauz (Zarautz), Heya (Aia), Hasarna (Aizarna) eta Hasarna çaval (Aizarnazabal)”. Gipuzkoako hamar “corredium”ek urtero 80 libera ordaintzen zizkieten Iruñeko apezpikuari XIV. mendearen amaieran (“corredium” bakoitzak 8 libera)<sup>11</sup>.

Garbi ikusten da zerrenda hori 1383. urtea baino lehenagokoa dela, eta hiru urte lehenago Zestoan kolazioa bai, baina parrokiarik ez zegoela.

Dena den, 1380. urtean indar handia zuten Ahaide Nagusiek. Elizetako patronatua beren esku zuten, eta eskubide hura aspaldi-aspaldikoa zutela zioten. Erregeak ere beretzat hartzen zuen, hiribildu berria egiten zenean, elizaren patronatua; apaizak izendatzen zituen eta bertako hamarrenak jasotzen zituen. Diru-iturri oparoa zen, beraz, elizako patronatua. Gipuzkoan eliza gutxi ziren norbaiten patronatuaren mende ez zegoenik. Sistema hori zela eta, hurrengo urteetan gatazkak izan ziren apezpikuaren eta patroik sekularren artean.

1380. urtean Iruñeko apezpiku Martin Zalba zen (1377. urtean izendatu zuen apezpiku Gregorio XI.a aita santuak). Gero kardinal ere izango zen Martin

Zalba, zeina Mendebaldeko Zisman (1378an hasita-koan) beti Avignongo aita santuen aldeko izan baitzen, Klemente VII.aren aldekoa lehenbizi, eta Benedikto XIII.a edo Pedro Lunaren aldekoa gero. Gizon jakituna eta diplomazian trebea izan zen. Nafarroako Karlos II.ak erreinuko Kantzelari izendatu zuen<sup>12</sup>.

Frantziako erregea ere Avignongo Aita Santuaren aldeko agertu zen. Gaztelako erreinuan Medina del Campo herrian batzarra egin zuten zein Aita Santu aintzat hartu erabakitzeke. Batzar hartan zen Martin Zalba Iruñeko apezpikua, inola ere Gaztelakoa zen Gipuzkoan jurisdikzioa zuelako. Bestalde, Nafarroako Karlos II.a erregearen ordezkari ere bazen. Gogoz parte hartu zuen. Klemente VII.aren alde azaldu zen 1380. urteko bileretan eta hurrengo urtekoetan.

Nafarroako erreinua ez zen garbi azaldu, ez Erromako eta ez Avignongo Aita Santuaren alde. Urte hartan Nafarroako Konpainia bat Grezian eta Albanian zebilen, eta hango buru Karlos II.a erregearen Luis anaia zen. Pedro Lasaga, Nafarroako erregearen kamarlengoa, 1380. urtean itzuli zen espediziotik, eta Nafarroan bertan izurritea izan zuten<sup>13</sup>. Gaztelan ere izan zuten izurritea urte hartan<sup>14</sup>.

Gipuzkoarrak garai hartan itsasoan trebeak ziren. Horregatik Gaztelako erreinuak bere gerretan erabiltzen zituen, eta 1380. urtean, hain zuzen, itsas armadan ziren Ingalaterrako Tamesi ibaian gora joanda<sup>15</sup>.

Ordurako Gaztelako erreinuan juduen aurkako joera ere zabaldua zegoen, nahiz eta goi-maila XV. mendearen amaieran lortuko zuen. 1380. urtean Sorian egindako Gorteetan, juduei debekatu egin zitzairen zutik irakurtzen zuten heresia-otoitza esatea, kristauen, elizgizonen eta hildakoen aurkakoak zirelakoan. Inongo liburutan ezin zituzten otoitza haiek idatzita eduki. Bestela hiru mila marai ordaindu beharko zituzten, edo ehun zigor-kolpe hartu. Juduei debekatu egin zitzairen beren errabinoak auzi kriminetan erabiltzea, edo mairu, “tartalo” eta beste zenbait sektatakoak erdaintzea<sup>16</sup>.

### 6.1.4. Saroiak

Bizkaiko Ziortzako Andre Mariaren monasterioak Bizkaian ehun eta bat saroi omen zituen 1380. urtean: Markina-Xemeingo Amalloan 49, Mendatako Gastiburun 5 eta Oitz mendian 47<sup>16</sup>. Zestoan 1380. urteko agirietan Agiretakoa eta Ariakoa azaltzen zaizkigu lehenbizi, baina hurrengo mendei dagozkien ataletan beste hainbaten berri ere izango dugu. Beraz, saroiak zer ziren zerbait argitzen saiatuko gara.

Euskaraz “saroi” hitzaren sinonimo dira “saroe”, “sarobe”, “sarobia”, “saobia”, “saabia”, “saboia”, “sario”, “korta”, “kaiolar”, “barrendegi” eta “ol(h)a”. Espainieraz, berriz, “sel”, “braña”, “cubilar”, “bustaliza” (idiak larratzeko barrutia<sup>17</sup>), “majada” eta “redil” hitzak erabili izan dira saroiak izendatzeko<sup>18</sup>. Agiri zaharretan “egogue” eta “ergue” (euskaraz “saroi belarbetaek”) izenak ere erabili ziren<sup>19</sup>.

Pedro Bernardo Villarreal Berrizkoak XVIII. mendean, Bizkaikos aroieza riza aroiaz irkulupe rfektua zela zioen. Zentroan mugarri bat zuen, “autsarria” edo haustarria izenekoa. Neguko saroiari “korta osoa” deitzen zioten, eta udakoari “korta erdia”. Haustarrian sua egiten zuten gure arbasoek abereak zaintzen zituztenean. Neguko saroiaren erradioa 126 “estado” edo besaldikoa zen, eta udako saroiarena 84 “estado” edo besaldikoa<sup>20</sup>.

Zentroko haustarriari “austarritza”, “kortarri” eta “artamugarri” ere deitu izan zaio<sup>9</sup>. Harri bakarraz edo harri bat baino gehiagoz egindakoa izan daiteke. Horrez gain, saroiaren perimetroa markatuz haustarri bakoitzak “baztermugarriak” izan zitzaizkeen. Baztermugarri horiek non zeuden adierazteko, haustarriaren gainean gurutze edo izartxo eran lau, zortzi edo hamasei marra egon zitezkeen, bakoitzak puntu kardinala edo puntu kardinalen artekoa markatuz. Ez dakigu lerroen banaketa horrek eginkizun sinboliko edota astronomikoa zuen.

Saroiak transhumantziako abelazkuntzarekin lotu izan dira, eta askotan eraikuntza megalitikoaren ondo-

an daude. Euskal Herritik kanpo ere badira saroiak, hala nola Galizian, Asturiasen, Kantabrian, Extremaduran, Gaztelan eta, agian, Breizh-en (Breitainian). Basoko soilguneak ziren saroiak, ganadua bertan larratu eta bertara biltzekoak. Horrez gain, basogintzarako ere gune garrantzitsuak izan zitezkeen, eta bertan zegoen basotik, besteak beste, egur-ikatzak egiten zuten<sup>18</sup>.

Zestoako gure bi agiri garrantzitsuetan, 1380-II-9koetan, Ariako eta Agiretakoa saroiak 12 edo 6 “cobdera”koak (12 edo 6ko erradiokoak) ziren erabaki behar zuten. Neurri-unitate hori euskarazko “gorabila” da. Hain zuzen neurri hori zuen eredu bana, XIV. mendearen amaieran, Gipuzkoan Añdoaingo Isturitzaga etxean eta Azkoitian gordetzen ziren. XVI. mendearen hasieran, berriz, eredu bat Zizurkilgo San Miliango hilerriko 5. zutabearen zegoen (burdinazko pieza zen), eta korrejidoreak Asteasuko Andrazabal etxean zain zezatela agindu zuen<sup>21</sup>.

Gorabilak 7 estado edo besaldi zituen, eta neguko saroi edo hamabi gorabileko erradioko saroiak (72 gorabila inguruko zirkunferentziakoak) 168 besaldikoko erradioa zuen. 6 gorabileko udako saroiak, berriz, 84 besaldikoko erradioa zuen<sup>22</sup>.

Dena den, neurri horiek ez ziren beti zehatz-mehatz errespetatzen, eta saroi guztiak ere ez ziren beti zirkularrak izaten.

Gorabilak zenbat metro zituen jakiteko, esan beharra dago 7 estado edo besaldi zituela. Besaldi bakoitzak, berriz, 6 oin zituen, eta oin bakoitzak 0,28 metro. Beraz, gorabila = 0,28 x 6 x 7 = 11,76 metro. Gero gorabilaren neurriak gorabeherak ere izan zituen. Dena den, hona hemen zenbait leku eta urtetako saroiaren erradio eta azalera: Bizkaian, 1884an 122,818 m (4,7 ha) eta 245,63 m (18,9 ha); Ataunen, 1409an eta 1765ean, 81,88 m (2,1 ha) eta 116,97 m (4,3 ha); Aralarren, 1869. urtean, 82,4 m (2,16 ha); Urumeako “Montes Francos” deitutako lurretan, 1992an, 142-147,0 m (6,33 ha); Oñatin, 1976an, 150

m (7,68 ha); eta Artikutzan, 1863an lauki-formako saroia, 400 x 400 m (16 ha)<sup>18</sup>.

Bizkaian Gorbeia abeltzainak goi-mendira maiatzaren hasieran igotzen ziren beren ardi, behi, zaldi, ahuntz, oilo eta txerriekin. Txerriak gaztagin-

tzarekin batera gizentzen ziren, maiatzetik uztailaren amaiera arte. Gero, azaroaren hasieran, neguko saroietara jaisten ziren<sup>23</sup>.

Jose Migel Barandiaranek zioenez, Euskal Herrian saroietako txabola asko gero baserri bihurtu ziren<sup>24</sup>.

## 6.2. 1381. URTEA

### 6.2.1. Iruñeko apezpikua eta Gipuzkoa

Iruñeko apezpikuak, Martin Zalba nafarrak, Gaztelako Medina del Campo herrian parte-hartze garrantzitsua izan zuen, Mendebaldeko Zisma zela eta, Avignongo ala Erromako Aita Santuaren alde egiteko. Gaztelako erreinurako hartu behar zen erabakia, eta bilerak aurreko urteko azaroaren 23an hasiak zituzten. Sigüenzako apezpikuaren gidaritzapean hauek parte hartu zuten: Gaztelako apezpiku gehienek, Errege Kontseiluko kideek, Pedro Luna kardinalak, Avignongo Klemente VII.a aita santuaren fiskalak, Frantziako Karlos VI.a erregearen enbaxadoreek, Erromako Urbano VI.a aita santuaren bi ordezkariak eta Iruñeko Martin Zalba apezpikuak (Nafarroako Karlos II.a erregearen ordezkari gisa ere parte hartu zuen honek).

Bi batzorde izendatu ziren gaia aztertzeko, eta horietako batean parte hartu zuen Zalba apezpikuak. Honek eztabaida gogorak izan zituen Erromako Aita Santuaren aldekoekin. Batzordeek ondorioak 1381ko apirilaren 24an jakinarazi zituzten. Gaztelako erreinuak Avignongo Aita Santuaren alde egin zuen. Ondorioz, Martin Zalbak argi eta garbi Klemente VII.aren alde sutsu jokatu zuelako, Erromako Urbano VI.a aita santuak eskumikatu egin zuen. Nafarroako Karlos II.a erregea, berriz, ez zen, ez Erromako eta ez Avignongo Aita Santuaren alde azaldu<sup>12</sup>.

Garai hartan Iruñeko elizbarrutikoa zen Gipuzkoa-zatirik handiena, eta, Zestoa bezalaxe, Zumaia ere bai. Zumaia eliza lehenbizi Orreagakoen Andra Mariaren monasterioa izan zen, baina 1381. urtean San Pedro eliza izendatzen hasi ziren, eta harrezkero halaxe deitu izan zaio<sup>25</sup>.

6.5. irudia. Zumaia herria eta San Pedro eliza.



Urte hartantxe Orreagako komentuek demanda jarri zion Debako hiribilduari, Zumaiako elizarenak ziren zenbait mendi eta lurretako eskubideak zirela eta. Hurrengo urteetan ere jarraitu zuen auzi hark<sup>26</sup>.

Auziak ebazteko, Gipuzkoarako Gaztelako Joan I.a erregeak Pedro Arriaga zuen urte hartan alkate eta

korrejidore, eta Pero Lopez Aiarakoa zen bertako merio nagusi<sup>27</sup>. Aipatutako errege berak urtero laurogei marai agindu zizkion Fortun Santxez Zarauzkoari, San Martin egunez Zarauzko hiribilduan erregearentzat jasotzen zen zergatik<sup>2</sup>.

## 6.3. 1382. URTEA

### 6.3.1. Nafarroa, Orreaga eta Gipuzkoa

1382. urtean Pedro Luna kardinala etorri zen Iruñera, Nafarroako Karlos II.a erregeari Avignongo Klemente VII.aren alde hitz egitera. Karlos II.ak oso ongi hartu zuen, baina ez zuen inolako konpromisorik sinatu. Iruñean bertan zen Martin Zalba apezpikua, Klemente aita santuaren aldekoa hau ere<sup>12</sup>. Baina Erromako Urbano VI.a aita santuak ere bidali zion mandataria Iruñera Karlos II.ari, eta hari ere ongietorria egin zion, Aragoiko eta Ingalaterrako erregeak Erromakoaren aldeko zirelako<sup>13</sup>.

Nafarroan, bestalde, izurritea izan zen urte hartan eta hurrengoan. Haren eraginez, erreinuko demografian ondorio negatiboak izan ziren<sup>28</sup>.

Aurreko urtean hasita Orreagak eta Debako herriak auzia zuten zenbait mendi eta barrutiren eskubideez. Ondorioz, 1382-VII-13an Debako Kontzejuak ahalordea eman zion Pedro Gonzalez Ibarrolakoari, Orreagako prioreari auzia Elizako epaitegitik atera eta Gaztelako erregearen epaitegi zibilera pasazedin<sup>2</sup>. Ibarrolakoak, dirudienez urte hartako abenduaren 20an, Orreagan bertako prioreari auzia jurisdikzio zibilera pasarazteko eskea egin zion<sup>29</sup>.

Gipuzkoan Ahaide Nagusiek indar handia zuten garai hartan. Garbi ikusten da, adibidez, Astigarragako biztanleek Nabarra Martinez Oñazkoarekin (Murgiko andrearekin) 1382-VII-18an egin zuten kontratuan. Astigarragako biztanleak Murgiko etxearen

jabeak babestuko zituen “gomendio” izeneko loturari esker. Urtero diru-zerga ordainduko zioten Murgiko etxearen jabeari, eta harentzat zenbait lan ere egingo zuten<sup>2</sup>.

Aldi berean Gipuzkoako kostaldeko merkatari eta marinelak urrun ibiltzen ziren itsasoko bidaiak zirela medio. Martin Perez getariarrak Brujasera egin zuen bidaiia. Gainera, 1382ko bidaiia haren abiapuntua Mediterraneoeko porturen bat izan zen<sup>30</sup>. Beste zenbait gipuzkoar, berriz, erregearen itsas armadan zebilen Lisboan, portugaldarren aurkako gerran. Itsaslapurretan ere ibiltzen ziren gipuzkoarrak garai hartan<sup>15</sup>.

1382-XII-19an Iruñeko Martin Zalba apezpikuak agiri bat eginarazi zuen Getariako benefiziadu zen Antso Perez Iraetakoak Aizarnazabalgo San Migel elizako erretore izendatuz (ikus [XIV. m. 5] agiria). Antso bizimodu eta ohitura oneko gizon zintzo eta bertutetsua zen, eta lehengo erretorea hil egin zelako hura izendatu zuen kargurako. Elizak zituen eta izan zitzakeen ondasunen arduradun egin zuen. Bertako eliztarren arimak zaindu behar zituen. Kargu-hartzea apezpikua aurrean zela egin zen, honek erretore berriari eraztuna emanda. Gainerako erretore, bikario eta presbiteroek ere Antso Perez Iraetakoari lagundu egingo zioten beste inork erretore zelakoan aurka egiten bazion. Aurkaria kargugabetutzat joko zen besterik gabe.

Antso Iraetakoak zin egin zuen apezpikuari leialtasuna gordeko ziola eta bere eginkizunak zuzen beteiko zituela.

## 6.4. 1383. URTEA

### 6.4.1. Zestoa hiribildu

1383an lortu zuen Zestoak hiribildua egiteko Gaztelako Joan I.a erregearen baimena. Urte hartan izurriteak kalte handia egin zuen, Iruñean behintzat<sup>17</sup>. Getarian ere herria husten ari zen izurriteen eraginez, eta, hiribilduan jende gehiago bizi zedin, Gaztelako erregeak 1383an urteroko zerga 8.500 maraitik 3.000 marairaino jaitsi zien. Aurrerantzean getariarrek gutxiago ordainduko zioten urtero, errege Enrike II.ari (Joan I.aren aitari) laguntza eman ziotelako<sup>30</sup>. Gipuzkoan Pero Lopez Aiarakoa zen urte hartan merio nagusi. Garai hartako zenbait agiritan Pero Lopez Gipuzkoako korrejidore ere azaltzen da. Literaturan ere nabar-

mendu zen Pero Lopez Aiarakoa, batez ere bere “Rimado de Palacio” idazlanaren bidez<sup>27</sup>.

Giro hartan, 1383. urtean, Gaztelako Joan I.a erregeak hiribilduak eraikitzeke bi gutun eman zituen: 1383-IX-15ean Segovian Zestoan hiribildua sortzeke, eta 1383-X-3an Segovian Urretxun beste bat (“Villarreal” izenekoa) eraikitzeke<sup>2</sup>. Hauek izan ziren Gipuzkoan eraikitako azken bi hiri harresituak. (Gero, 1453an, Oiartzuni ere eman zioten hiribildutitulu<sup>31</sup>, baina harresirik gabeko herria izan da).

Zestoa eraikitzeke hiri-gutunaren berri “Agiritegia” deitutako atalean ematen dugu [XIV. m. 6] agirian.



6.6. irudia. Zestoako hiribildua.

Zestoako hiribildua Urola ibaiaren inguruan eraiki zuten, lehengo “kolazioa” zegoen lekuan eta Arrasate Getariaraino zihoan bidearen ondoan. Diotenez, garai hartan ibaian gora hiribildu berriraino nabiga zitekeen<sup>32</sup>, baina ez dakigu albiste horrek oinarri sendorik duen.

Guk dakigunez, harresien barruan oraindik ez da aurkitu 1383. urtea baino lehenagoko arrastorik, nahiz eta bertako etxe zaharren bat edo beste botatakoan berria eraiki baino lehen arkeologoek orubeak aztertu dituzten<sup>33</sup>.

Zestoako hiribildua eraiki zutenean bi kale eta kantoi bat (oraingo Zesareo Diaz kalea) geratu ziren. Guztira 125 metro kale ziren<sup>32</sup>, eta harresi barruko azalera 1,3 hektareakoa. Kaleen orientazioa 20° mendebalderakoa da<sup>34</sup>. Harresi eta kaleen arteko espazioa lursail edo “enparantzatan” banatzen zuten, eta haietako bakoitzean familia bat bizitzeko lekua zegoen. Kale aldera zortzi bat metro izaten zituen etxearen fatxadak, eta atze aldera hamabi bat metroko hondoa. Zestoako hiribilduan 65 “enparantza” zeudela kalkulatu izan dute, eta ez da asko inguruko beste herri batzuetakoen aldean. Izan ere, Azpeitiak 140 zituen, Debak 90, Azkoitiak 90, Getariak 155, Hernanik 215, Donostiak 320, Tolosak 235 eta Zumaiak 135, adibidez.

Zestoan harresi barruko lursailak elipse-forma zuen, Deba, Elgoibar, Hernani, Arrasate, Tolosa eta Ordiziak bezala<sup>32</sup>. Harresi barruan bi kale paralelo zituen (bata oraingo Kaleokerra, eta bestea oraingo Erdikalea eta Elizkalea elkartuta sortzen dena). Horregatik, hiru etxe-ilara zituen: harresien kontra alde banatan ilara estu bakarra, eta, bi kaleen artean, argia sartzeko erdian etxearte eta guzti, ilara bikoitz zabalagoa. Etxeak, gehienetan, harresien kontra egoten ziren, eta sarbidea hiribildu barruko kaleetatik zuten. Etxeen kanpoko horma, beraz, harresia zen<sup>34</sup>.

Zestoan lehendik “kolazioa” edo herri banatua zegoen, batez ere abelazkuntzatik bizi zena, eta herri bilduan elkartu ziren. Bertan, gerora, nekazaritzak

indar handiagoa hartuko zuen. Lehen baserri sakabatuetan bizi zen jendea hiribilduko kalera etorri zen bizitzera.

Arlo politikoan Gipuzkoan Batzar Nagusiak ziren erakunde gorena, baina Gaztelako erregeak bazituen eskumenak goi-mailako Justizian eta gerrako gaietan. Hiribilduak (beren epaitegi eta kartzelarekin) sortzeko eskumena ere erregeak berea zuen.

Zestoako hiri-gutunean inguruko zaldun eta ezkurtariak gaiztakeriak egiten zizkietela adierazten da. Inguruko herrietan ere antzeko kezak izan ziren, eta ez da ahaztu behar Zestoan, Iraetan, bazela Ahaide Nagusia. Handiki haiek, edo haien morroi eta zerbitzariak, ibili ohi ziren lapurretan. Haiei aurre egitearren biltzen zen jendea hiribildutan erregearen babespean.

Hiri-gutunean, bestalde, Aizarnako parrokia Nafarroako eta Gaskoniako mugan zegoela esaten da. Nafarroak, jakina, Gipuzkoarekin muga egiten zuen, baina Gaskonia ere bertan zen; izan ere, Ingalaterraren lurak Hendaiaraino heltzen baitziren. Beraz, hortik itsasoz gertu zegoen Aizarna<sup>35</sup>.

#### 6.4.2. Zestoako harresiak

Zestoako hiribilduak gutxi gorabehera elipsearen formako harresiak zituen, eta lau portale ere bai, gaeuz ixteko ate, giltza eta guzti. Ondoko irudian markatu ditugu zenbaki bidez lau portaleak. Harresiak beharrezkoak ziren barruan jendea babesteko, baina erakitzea garestia zen. Beraz, kontuz diseinatu behar zen. Kaleak barruan ezartzeko forma erosoena laukizuzena da, baina, matematikak dioenez, perimetro txikienaz barruan azalera handiena hartzen duen forma geometrikoa zirkunferentzia dugu.

Gure ustez, Zestoan zirkunferentziaren eta laukizuzenaren erdibideko forma hautatu zuten: elipsearen antzekoa.

Beste kontu bat da harresiko lau portaleak non zeuden argitzea. Portale bat, “Lizarraraskoa” deituta-

6.7. irudia. Zestoako  
"Lizarrarasko" portalea,  
1935ean eraitsia. (Indale-  
zio Oiangurenen argazkia).



koa, oraingo Pio Baroja plazaren iparraldean zutik egon zen 1935. urtera arte. Errepublikaren garaian bota zuten bidea zabaldu asmoz. Zorionez, bota baino lehen Indalezio Ojanguren eibartarrak argazkia atera zion, eta, hari esker, badakigu nolakoa zen<sup>36</sup>. Portale hura botatzeko aldeko eta aurkako iritziak izan zituzten beren garaian herritarrek<sup>37</sup>. Plazaren erdialdean "Palankadoko" portalea zegoen. Erdarazko "palanca" izenaren adiera bat hesola eta lurrez egindako gotorlekua da, eta agian horrelako zerbait izango zuen kanpo aldetik.


Bigarren portalea, mendebaldekoa, Arretxe ondoan oraindik ere zutik dagoena da. Kerexeta ostatua, Agustín taberna edo "Torrea" etxea deitutakoa harresiaren gainean eraikita dagoela ikusten da.

Hirugarren portalea, hegoaldekoa, "Portalekoa" etxearen ondoan zegoen. Horregatik deitzen diogu horrela etxeari, hain zuzen ondoan portalea zuelako. Laugarren portalea, berriz, gure iritzi oraingo Foru Plazan zegoen, baina ez da "Iraeta etxea" edo Zuntzunezko etxearen fatxadaren parean orain dagoena. Ez da ahaztu behar 1665. urtean herriko plaza zeze-

nak korritzeko eta beste zenbait eginkizunetarako luzatu egin zutela. Orduan botako zituzten ekialdeko harresi zatia eta ekialdeko portalea. Eliza ere, 1549an erre egin zen, eta gero luzatu egin zuten harresiz kanpo. Horregatik markatu ditugu harresiak elizaren erdialdean.

Beste harresi zati txiki bat bazen, nire ustez, 2004. urte amaiera arte "Gure Txokoa" elkartearen egoitza zen etxean. Atzeko aldeko horma lehen oineraino lodia goa zen, eta hiribilduko harresia izan zitekeela pentsarazteko arrazoiak bazeuden. Izan ere, Zestoako eliza 1549an erre egin zen, eta 1566. urtean berria

6.8. irudia. 1974. go Zestoa eta XIV. mendean zituen harresiak, gutxi gorabehera.



(orain aldare nagusia dagoen aldera luzatuta) eraiki nahi zuten. Horretarako egin zituzten agirieta batean Iraetako jaunak eliza zaharraren ondo samarrean iparraldera dorrea zuela esaten da: “... la dicha iglesia/12 a la parte del evangelio azial norte entre/13 el cuerpo y paredes de la dicha casa y un solar/14 de la torre del dicho señor de Yraeta tiene cierto/15 pedaço de suelo para çimenterio para el qual/16 avia su postigo...”<sup>38</sup>.

Iraetako jaunaren dorreak bere garaian izandako horma bat oraindik zutik dago. Gero “Etxaluzea” ize-



neko etxea egiteko erabili zuten horma hori, bi aldeetatik eta goitik horma meheagoekin luzatuta (ondoko irudiko A puntutik aurrera eta B puntutik atzera). Horma horrek jatorriz zuen gezi-leihoarene oraindik ikus daiteke Etxaluzearen eta Eliz Ondo zinemaren artean dagoen pasabide estuan lurretik metro inguruko altueran. Beraz, gure iritziz, Iraetako jaunaren dorrearen mendebaldeko horma (A-C) hiribilduko harresia zen.

Hain zuzen Elizkalean “Gure Txokoa” etxearen atzeko hormaren norabidea Iraetako jaunaren dorrearen A punturakoa zen. Horrez gain, beste albiste batek ere, nire ustetan, sendotu egiten zuten “Gure Txokoa” etxearen atzeko horma harresiaren zati zelako hipotesia<sup>40</sup>.

Dena den, arkeologoek beharrezko azterketak egin zituzten, eta horma ez zela Erdi Arokoa ebatzi zuten<sup>41</sup>.

### 6.4.3. Hiribilduen ezaugarriak

Hiribilduek harresietako portaleetan ateak zituzten, gauean ixteko. Ateetako giltzak alkateak zaintzen zituen, eta konfiantzazko gizonak izaten ziren atezainak. Batzuetan portalearen ondoan dorreren bat egoten zen.

Hiribilduen barruan, elizak, jauregiak edo dorreak izan ezik, etxeak zurez egiten ziren XV. mendearen amaiera arte (horregatik harriz egindako etxeari “Arretxe” deitzen zitzaion, gainerakoak zurezkoak zirelako). H aritzae tapa goae rabiltzenz utenka npoko zein barruko itxitura, zutabe, habe eta abar egiteko<sup>32</sup>. Asmatzekoa da, beraz, etxe batek su hartzen baldin bazuen sua hiribildu osora zabaltzen zela. Horregatik hiribilduetako Kontzejuko ofizialak suteak saihestiaz arduratzen ziren, argi egiteko kandelak hormetan arriskurik gabe nola eduki behar ziren erakutsita. Dena den, etxeak erretakoan orubearen jabetza lehen-

6.9. irudia. Etxaluzearen horma. Lodiagoa da Iraetako dorrearen horma ere bazen zatia.

go jabearen esku geratzen zen, eta etxea leku berean berreraiki ohi zuten.

Gipuzkoako hiribilduetan harresi barruan azalera handiena Donostiak zuen: 6,4 hektarea. Tolosa zen bigarrena (4,7 ha), Bergara hirugarrena (4,6 ha) eta Hernani laugarrena (4,3 ha). Bederatzi hiribildu ziren harresien barruan bi hektarea baino gutxiagoko azalera zutenak: Hondarribia (1,9 ha), Azkoitia eta Deba (1,8na ha-rekin), Urretxu eta Mutriku (1,6na hektarearekin), Orio (1,4 ha), Zestoa (1,3 ha) eta, txikienak, Leintz Gatzaga eta Elgeta (1,0 ha). Gipuzkoako gainerako hiribilduek bi edo hiru hektarea zituzten.

Hiribilduen oinplanoak zenbait forma izan ditza-ke. Batzuek kanpamentu militarrena edo laukizuzenarena dute: Donostiak, Hondarribiak, Getariak, Elgetak, Usurbilek, Urretxuk eta, agian, Azkoitiak. Donostiak zazpi kale zuzen eta paralelo zituen. Beste hiru kale paralelo ere bai, lehengo seiekiko zut. Hon-

darribiak bost kale zuzen paralelo zituen, eta denak zut zeharkatzen zituen beste bat ere bai. Getariako hiribilduak (3,1 ha) lau kale paralelo ditu, baina erdialdean elizarekin topo egiten dute. Bi kantoitu aipaturiko lau kaleekiko zut, goitik porturaino. Elgetak harresi barruan erdian kale bakarra du. Kalezarren Usurbilgo hiribilduak (2,0 ha), berriz, hiru kale paralelo ditu, eta zeharka beste bat. Urretxuk bi kale zuzen paralelo ditu. Azkoitiak harresiak eta kaleak nondik nora zituen erabakitzeke ez dago behar adina datu.

Beste hiribildu batzuek obaloaren antzeko forma dute. Horrelakoak dira, adibidez, Arrasate (3,4 ha), Ordizia (2,4 ha) eta Hernani. Hiru kale dituzte, eta erdikoa da zuzenena. Alboetako bi kaleak okerragoak dira, obaloa ixteko. Elgoibarrek (2,0 ha), Soraluzek (2,1 ha) eta Zestoak bi kale paralelo eta oker dituzte. Leintz Gatzagak eta Debak hiruna kale dituzte, baina forma karratua osatzen dute.



6.10. irudia. Zestoako hiribilduko bi etxe sail. Bien artean argia sartzeko tartea zegoen. Eskuinean "Kaleokerra".

Azkenik, hirukiaren antzeko forma dute Segurak (3,4 ha), Azpeitiak (2,8 ha), Bergarak eta Errenteriak (2,3 ha). Gehienek hiru kale dituzte, zeinak puntu batean bildu egiten baitira. Zumaia (2,7 ha), Orio, Mutriku eta Zarautz (2,1 ha) ere gutxi-asko eredu honi jarraitzen zaizkio.

Etxeak hiribilduko kaleetan elkarren ondoan eraikitzen ziren, eta sarbidea kaleren batera izaten zuten. Eliza ere, hiribilduaren barruan eraikitzen zuten. Zestoakoa ere halaxe zegoen.

Aipagarria da, bestalde, Zestoako hiri-gutunean erregeak beretzat gordetzea zeuden edo egon zitezkeen urre, zilar eta kobrezko meatzeak. (Hiri-gutunean “azul” deitzen duena gure ustez kobre sulfato naturala da,  $\text{CuSO}_4$ , edo harri urdina). Antzeko erreferentziak daude, halaber, Elgoibarko hiri-gutunean (1346-XII-20koan) eta Urretxukoan (1383-X-3koan)<sup>35</sup>. Ez dugu uste, dena den, hiru herri horietan inoiz halako meategirik egon denik. (“Argibide geologikoak” izendatu dugun 1. kapituluan lignitoaz gain burdina eta zinka izan ziren XIX. eta XX. mendeetan Zestoako meategietako helburu).

Hiribilduek harresi inguruan, kanpo aldean, beren baratze eta soroak edukitzen zituzten. Soroak laiatu egiten ziren. Zestoan harresiez kanpo “Lizarrarasko” portaletik gertu larraina zegoen. Sagastiak ere ugari ziren, sagardoa egiteko. Mahastiak ere baziren, baina ardoa urri izaten zen, eta kanpotik ekarritako ardorik ez zen hiribilduan saltzen bertakoa amaitu arte.

Hiribilduan hainbat ofiziotako jendea bizi zen, bertako biztanleentzako zerbitzuak segurtatzearen. Okinak, harakinak, zapatariak, zurginak, harginak, ehuleak, olagizonak, etab. zeuden.

Jendeak hiribilduari zegozkion lurretan zeuden burdinoletan ere egiten zuen lan. Horretarako behar zen minerala eta egur-ikatzak ekartzeko eta landutako burdina eramateko garraioan (bai lehorrean eta bai itsasoan) eta ikazkintzan ere lan egiten zuten. Merkataria ere produktu-salmentan aritzen ziren. Erregeek

babestu egiten zuten burdinoletako jarduera; izan ere, burdina gai estrategikoa zen, besteak beste armagintzarako.

Hiribilduan eskribaua ere nahitaezkoa zen. Hark notario-lanak egiten zituen agiriak idatzi eta, bere ikurra erabiliz, sinatuta.

Hiribildu bakoitzak bere Forua zuen gobernatzeko. Gipuzkoako hiribilduei Donostiako Forua (Jacako Forutik eratorria) ala Logroñoko Forua (edo Logroñokotik eratorritakoa) eman zitzairen. Erregeak Forua emandako hiribilduko biztanleek abantailak zituzten Lur zabaleko biztanleen ondoan. Hiribilduko biztanlearen etxebizitza ez zegoen bortxatzerik, eta etxejabeak eskubidea zuen nahi zuenari etxera sartzea eragozteko. Gainera, hiribildukoek askatasuna zuten merkataritzan aritzeko. Edozein ondasun urtebete eta egun batez erabili baldin bazuten, ondasun horren jabe izateko eskubidea zuten.

Zestoak Logroñoko Forua jaso zuen, Gasteizkoaren eta Azkoitikoaren bitartez. Errotak, labeak, etab. egiteko eskubidea zuten. Lurra erregearena zelako urtero errenta ordaindu behar izaten zuten<sup>35</sup>.

#### 6.4.4. Hiribilduko Kontzejua

Hiribildua gobernatzeko Kontzejua zegoen, bere arduradun eta ofizialekin. Kontzejuak markatzen zituen salgaien prezioak, eta debekatuta zegoen hiribilduan prezio haiek baino garestiago saltzea.

Gipuzkoan hiribilduek beren burua Kontzejuaren bidez aske gobernatzen zutelara esan daiteke, baina korrejidoreak ere bazuen bere ahalmena. Kontzejuan hiribilduko auzotar gizonek parte hartzen zuten, eta auzotar izateko bertan jaioa edo bertan denboraldi batez bizi izandakoa behar zuen. Horrez gain, auzotar izateko ondasun higiezin jabe ere izan behar zuen.

Kontzejua kanpai-hotsak entzun ondoren biltzen zen, eta kideak behartuta zeuden bertara joatera. Funtszko arrazoirik gabe huts eginez gero, isuna izaten

zuten. Hainbat eta hainbat gairi buruzko erabakiak hartzen ziren Kontzejuetan. Pisu eta neurriak, elikagaiak, basogintza, Batzar Nagusiak eta beste hainbat gai eztabaidatzen zituzten. Ondorioz, zenbait arlotarako ofizial batzuk izendatzen zituzten.

Donostiako eta Logroñoeko Foruetan hiribilduetako Kontzejuetarako alkateak, errejidoreak, zinegotziak, probestuak, eskribauak, ofizialak, etab. aipatzen dira. Kargu horietarako hiribilduko auzotarrak izendatzen ziren. Kontzeju haietara hiribilduko auzotar guztiak biltzen ziren, eta horrela “Kontzeju irekia” osatzen zuten<sup>34</sup>. Donostiako Forua zuten hiribildu batzuetan aldi berean bi alkate ere izan zituzten (Zumaian eta Getarian, adibidez). Alkatea urtero hautatzen zuten auzotarrek. Zestoan San Migel egunez aukeratzen zuten, urte batean Zestoako parrokiakoa eta hurrengoan Aizarnako parrokiakoa, txandaka. Gainerako Udal-karguak ere sanmigeletan aukeratzen zituzten Zestoan.

Pertsona bera ezin zen bi urtez jarraian alkate izan. Alkateak arlo askotan zituen eskumenak. Lehen

auzialdiko epailea zen, gaizkileak atxilotu egin behar zituen, herrian moralitasuna eta ordena zaindu egin behar zituen, ondasunak eta pertsonak babestu egin behar zituen, hiribilduko elikagaiak hornitzeaz eta prezioez arduratu behar zuen, etab.

Alkateak errejidoreak laguntzaile izaten zituen. Haren zerbitzura ibiltzen ziren ordena publikoa zaintzen eta azoketako horniketak segurtatzen. Errejido-reek kargua hartzen zutenean zin egiten zuten (alkateak ere bai). Urtebeterako arduraldia izaten zen.

Zinegotzi edo “fielek” batez ere Kontzejuko interes ekonomikoak zaintzen zituzten. Kontzejuak urtero aukeratzen zituen eta kargua hartzean zin egiten zuten. Horregatik ziren “zinegotzi”.

Kontzejuko eskribaua ere hautatzen zuten, urtebeterako hautatu ere. Udaleko agiriak idazten zituen eta Kontzejuaren erabakiak ere idatziz jasotzen zituen.

Kontzejuko prokuradorea ere hiribilduan hautatzen zuten urtebeterako, Kontzejuak zituen auziak



6.11. irudia.  
Zestoako udaletxea.

bideratzeko edo erregearengana jo behar zutenean hiribilduko ordezkari izan zedin.

Probestuak batez ere erregearen zergak kobratzen zituen hiribilduan. Erregeak hautatzen zuen probestua, baina Kontzejuak ere hauta zezakeen.

Auzitegiko gaietan alkateak jurisdikzioa zuen harresietatik kanpo ere, Udalaren lurraldean. Hala ere, hiribilduko auzotarra ezin zen bere ohiko bizilekutik kanpo atxilotu, eta auzia biztanleak hiribilduan zuen Foruaren arabera egin behar izaten zen. Kanpoko beste edonork hiribilduko auzotarren bat auzitara eramaten zuenean, hiribilduko Foruaren arabera epaituko zen.

Epaiarekin ados ez zeudenean, bigarren auzialdia Gasteizen izan behar zuten zestoarrek, hiri-gutunak dioenez. Gero bigarren auzialdian Probintziako korrejidorearengana jotzen zuten, eta azken maila erregearen Gortea izaten zen.

Kontzejuak ahalmen eta askatasun ekonomikoa zuen. Udalak bere ondasunak zituen, eta zenbait industria eta zerbitzu (harategia, labeak, errotak...) ustiatuta diru-sarrerak izaten zituen. Herri-lurrak errentan ere ematen ziren, eta mendiak, larreak, baso-

ak, etab. ere bai.

Beste diru-iturri bat arauak hausten zituzten auzotarrei ezarritako isunak ziren. Gaiien salmentako zergetatik ere Kontzejuak bere dirua biltzen zuen.

Hiribilduetako biztanleen beste betebeharrak bat erregeari arlo militarrean laguntzea zen. Erregeak gerrarako deia egiten zuenean, Logroñoko (edo Gasteizko, Azkoitiko eta Zestoako) Foruak ez zuen behartzen auzotarra gerrara soldadu gisa joatera, baina dirua ordaindu behar zion ("ozterarte" edo "fonsadera" izeneko zerga).

Alkate eta errejidoreak asko saiatzen ziren herriko elikagaien arloan. Prezioak eta pisu zein neurriak zorrotz kontrolatzen zituzten. Elikagaien kalitatea ere oso kontuan hartzen zuten, sagardoari ura nahastea debekatuz, esaterako. Kanpotik elikagaiak ekarri baino lehen bertakoak kontsumitu behar ziren.

Ordena publikoa ere oso kontuan hartzen zuten Kontzejuko arduradunek. Hiribildua bake-gunea zen, inguruetakoz zaldun eta ezkutariak egindako bortxakerietatik babestuta zeudelako<sup>34</sup>.

## 6.5. 1384. URTEA

### 6.5.1. Gipuzkoaren egoera

1384. urtean aurreko urteetako izurriteak kalte handiak eragin zituen. Nafarroan Karlos II.a erregea kexu zen Iruñean jende asko hil zelako<sup>17</sup>. Gipuzkoan ere egoera antzekoa izango zen, baina bertako jendea urte hartan itsasoz hainbat lekutara iritsi zen. Azpeitiko Pero Santxez Enparangoa Gaztelako erregearen aginduetara Portugalen aurkako gerran aritu zen<sup>41</sup>. Gerra horretantxe, Lisboa setiatzen ari zirela, Fernando Gebara hil zen, Oñatikoko Beltran III.a Belez Gebarakoa jaunaren semea eta gero Maria Beltran Iraetarekin Altzolaratsera ezkonduko zen Joan Beltranen anaia<sup>22</sup>. Lisboa itsasotik eta lehorretik setiatzen ari

zirela, Gaztelako armadan izurriteak jende ugari hil zuen, eta Joan I.a errege inbaditzaileak setioa altxatu egin behar izan zuen<sup>16</sup>.

Garai hartan gipuzkoarrak itsasoz urrutira iristen ziren, bertan egindako ontzietan eta bertako itsasgizonen eskarmentuaz baliatuta. 1384an, esate baterako, Joan Ibañez Izetakoa getariarrak, *Santa Maria* ontziko patrioiak, Mediterraneoan Eivissatik Genoara, eta handik Valentzia, Alacant, Granada eta Cadizen karga hartuta Arroxelaraino joan zen. Urte berean Otxoa pilotu getariarrak *San Nikolas* ontzian Giuliano de Mari merkataria genoarra Southampton-eraino eramaten zuen, eta han hartutako salgaiak Cadizeraino garraiatu zituen<sup>30</sup>.

Gipuzkoan, 1384an, zenbait auzo eta herri hiribildu batzuen inguruan biltzeko joera izan zen. Seguraren inguruan bildu ziren, adibidez, Lazkao, Legazpi, Zerain, Ormaiztegi, Astigarreta, Gudugarreta, Mutioloa, Zegama eta Idiazabal. Tolosaren babesera, berriz, urte hartan Albiztur bildu zen<sup>2</sup>.

### 6.5.2. Zestoarentzako lurrak

Agiri garrantzitsu baten berri ematen dugu “Agiritegia” atalean [XIV. m. 7] izenburuaz. Gaztelako Joan I.a erregeak zestoarrei lehen bezala Aizarnako parrokiak hartzen zituen lur, mendi, larre, ur eta gainerako ondasunez gozatzeko eskubidea aitortu zien Torrijosen, 1384-III-9an sinatutako agirian<sup>1</sup>. Hurrengo urtean zehaztuko eta mugarrituko zituzten lur haien nondik norakoak.

Dena den, 1384. urtean Gipuzkoako korrejidore eta merio nagusi Pero Lopez Aiarakoa azaltzen da. Gipuzkoako alkate nagusi, berriz, Pedro Perez Arriaga zen<sup>2</sup>.

Urte berean Bizkaian, Markina-Etxeberriko Amallo auzoan, Migel Arroa pertsona-izena dugu. 1384-II-30eko agiri batean honela dio: “... en Amallo, delante la casa de Miguel de Arroa do bibe de morada,...”<sup>42</sup>. Ez dakigu orain Zestoako parte den Arroarekin zerikusirik zuen ala ez.

## 6.6. 1385. URTEA

### 6.6.1. Lope Otxoa Olazabalgoa Zestoako auzotar

1385-V-12an, Lope Otxoa Olazabalgoa Zestoako herriak auzotar gisa onartu zuen, elkarri bete beharreko baldintzak zehazten zituen ituna sinatuta. “Agiritegia” atalean eman ditugu agiriaren zehaztasunak (ikus [XIV. m. 8] agiria).

Lehenik eta behin, argitu beharra dago bere izenean Lope Otxoak gauza bera errepikatu egiten duela, hau da, Lope (edo latineko “Lupus”) eta euskarazko Otxoa (edo “Otsoa”). Lehen aldiz azaltzen da, halaber, Zestoan burdinola. Altzolaraskoa, hain zuzen. Altzolarats errekan zituen Lope Otxoak presa, aldaparoa eta burdinola, eta burdinolei zegozkien gaietan Gipuzkoarako olagizonek zuten Foruaz gobernatuko ziren (ikus [XIV. m. 1] agiria). Dena den, Lope Otxoak, Zestoako beste edozein auzotarrek bezalaxe, herriko gastuetan bere parte ordaindu beharko zuen.

1385-VII-18ko Zestoako agirian (ikus [XIV. m. 9]) Bedamako presa aipatzen da, eta hura baino beherrako, erreka berean, Lope Otxoa Olazabalgoaren presa zegoela dio. Bi burdinola behintzat baziren Zestoan urte hartan.

1385-V-12ko agiria Zestoan egin bazuten ere, eskribaua Azpeitikoa zen: Joan Lopez Ibiakaizkoa. Ibiakaitz hori oraingo Zestoako Idiakaitz izan daiteke; izan ere, aldaketa bera ikusi izan dugu Ibiazabal eta Idiazabal formen artean<sup>43</sup>.

Bestalde, Zestoako leku-izen batzuk lehen aldiz agertzen dira agiri honetan: Txiriboga, Arizmendi, Altzolarats, Lizarrarats?...

### 6.6.2. Zestoaren mugak

1385-VII-18ko agiriak dioenez (ikus [XIV. m. 9] agiria), Zestoako lurrak mugarritzen Itziarko lurretan Lili izeneko lekuan hasi ziren. Urola ibaiatz ezker aldean sartzen zen Itziarko lur gisa, eta eskuinekoa, gure ustez, Errezilgoetan sartu behar litzateke.

Zestoako Pero Iñiguez Akoakoa alkatea (Zestoako lehen alkate ezaguna), Martin Ibañez Aranburukoa (zinegotzia) eta beste zenbait zestoar Martin Orue merioarekin (Pero Lopez Aiarakoa merio nagusiaren orde zetorrenarekin) Itziarko lurretako Lili izeneko lekutik hasi ziren Zestoako hiribilduaren lurrak mugarritzen.

6.12. irudia.  
Altzolaratspe edo  
Bekolako presa.



Lilitik errekan gora joanda Agireta (Agitta) izeneko lekura iritsi ziren, eta hor bi iturri elkartzen diren lekura. Hortik gora Urdanolaeta izeneko muinoraino joan ziren, mugarritik mugarrira, eta handik gurutze-marka zuen haritzerraino; izan ere, zuhaitzak enborrean gurutzea markatuta mugarriztat hartzen zituzten. Handik gurutze-markaz hornitutako pagoraino joan ziren gora. Zuhaitzez zehaztutako bi muga-puntuetan pagoa haritza baino altitude handiagoan agertzen zaigu, eta, hain zuzen, pagoak haritzak baino maiteagoak ditu goi-mendiak.

Hurrena “penna blanca” izeneko lekura zihoan bidexka zeharkatu zutela esaten da. “penna blanca” horrek zuhaitzik gabeko haitza dela adierazten du, hots, “Erlo”. Erlo ondoan da, gainera esanahi bereko leku-izena: Arrigorriko Bizkarra, eta harri gorriren esanahia Erlo hitzarena bera da.

Erlo Alkizorno deitutako mendiaren parean dagoela dio. Ez da erraza gaur egun Alkizorno leku-izena zein mendiri dagokion eta zer esan nahi duen jakitea. Nolanahi ere, Zestoan Zornotza (oraingo Zorrontza) leku-izena dugu Altzolarats aldean. Bestalde, orain

Zestoako herriaren mugak Ondarbaso baserritik Erlo-  
ra doan bidexka Soldadusoro izeneko lekuaren inguruan zeharkatzen du. Beraz, 1385eko bidezidorrak eta oraingoak ez dute alde handirik izango.

Erloko pare horretatik Azpeitiko lurren mugaraino joan ziren, gure ustez Mugeta izeneko lekuraino. Gero hortik bidean behera Legazpi ibairaino (orain-  
go Urolaraino) etorri ziren. Gallaritxo eta Gallari (XV. mendean “Gallain” deitzen zen) baserrien artean dago orain ere bi herrien arteko muga. Hortik gora muga Urola ibaiak egin zuen Lasaraino (oraintxe bezala). Agiri originalak “...pasaie de Lasao” dioenez gero, ibaia zeharkatzeko lekua izango zen.


Lasaotik aurrera muga Larrarko mendian zegoen. Inguru horretan Larzar eta Larberri baserriak ditugu orain, eta, inola ere, ganadua larratzeko lekua izango zen. Hurrengo urratsa Larrantik Anardi harrata-raino egin zuten. Ez dugu bazter uzten delako “harrata” hori “erreka” izan daitekeenik, nahiz eta hitzak “arrate”ren antza izan. Anardi baserria zegoen lekuaren ingurua izango da, noski.

Hortik aurrera Anegiidoietaraino heldu ziren. Beraz, inguruan idoi edo zingirak izango zituen, eta gaur egun zingira adierazten duen "Istinga" baserria dugu inguru horretan. Gainera, Zestoak Azpeitiarekin duen mugan 32. mugarria "Anegigaña" izenekoa da. Gorago joanda, Hezuria izeneko lekuan zegoen hurrengo muga, hau da, "haitz zuria" izeneko lekuan. Orain ere Zestoa eta Azpeitiaren arteko 35, 36 eta 37. mugarriek "Txurigain" izena dute.

Hurrengo mugarria Upaegi (oriango Upei) izeneko lekuan ezarri zuten, eta paraje horrek orain ere izen

bera du. Upaegitik Sañoa mendiko zelairaino joan ziren, eta handik Unamendira, hots, unai edo behizainen mendira. Sañoa ondoan dute elkargunea Zestoa, Azpeitia eta Errezilgo lurrek. Gaur egungo agirietan Unamendi izena erabiltzen ez bada ere, oraingo Artzaigaina leku-izena izan daiteke, A ntxiturbibekoa (lehen Intzitorbia) baserriaren parean dagoena.

Hurrengo mugarria Pagartekoa da. Handik Zegondiako (oraingo Txorondegiko) zelairaino joan ziren. Zegondia leku-izenak erromatarren garaian azaltzen diren "Secontia paramica" (Villarcayon), "Segontia"



6.13. irudia.  
Zestoaren lehen mugak.

(Sigüenzan eta Zaragozako Epila herrian) eta “Segontia Lanka” (Soriako Langa de Duero) gogorazten ditu. Zegondiatik Zauroako (“Zcurroa” edo Ezkurroako) kamainetaraino joan ziren. Hurrengo Bedamalaspiurreraino (erreka bihurri edo Granada-errekaraino) joan ziren, eta handik Bedamako saroiraino. “Sel bustaliza” dio originalak, hots, behiak larratzeko sarroia.

Bedamako saroitik hurrena Beidaiteira jo zuten (berriz ere behiak aipatzen dira, eta ez ardiak). Jarraian Bedamako presa izandako lekuraino joan ziren, hau da, 1385. urtea baino lehen Granada errekan egon zen presaraino. Antzinako presa hura Bedamako burdinolarena izango zen. Gero, errekan behera joanda, Lope Otxoa Olazabalgoaren presaraino iritsi ziren. 1385. urteko [XIV. m. 8] agiriaren bidez badakigu Lope Otxoak Altzolaratsen burdinola zuela, eta haren presa Bedamako presa zaharra baino behe-rago zegoen. Gure ustez oraingo Errotabarrenaren inguruan izango zen, horrela presak Illarragorri eta Salluta erreken urak ere bilduko zituelako. Bestela, Bekola baino goraxeago egongo zen presa berria.

Lope Otxoaren presatik Behetiaerrekaraino jaitsi ziren (gure ustez oraingo Bekola baserriaren ondokoa da), eta hortik Indoko bidexkaraino (“indo” hitzak, hain zuzen, bidexka esan nahi du) igo ziren. Gero gora Indamendiko gailurreraino iritsi ziren, eta handik behera egin zuten Errezubiagako sagastiraino. Errezubiagan, beraz, Urola ibaia zeharkatzeko errege-zubia zegoen.

Aizarnazabalgo Errezubiagatik Liliraino 1385. urtean Urola ibaiak (orduan Legazpi deitzen ziotenak) egiten zuen muga, oraingo Amilibia, Sabea, Iraeta, Osinbeltz eta Errotatxoraino.

Zestoak zituen lurretan garbi ikusten da ibaiak eta errekek hartzen zituztela mugatzat (Urola ibaia, Sastarrain eta Altzolaratserrrekak), baina mendi-gailurrak ere bai (Indamendi eta Sañoa).

Aipatutako [XIV. m. 9] agiriko mugak 6.12. irudiko planoan erakusten dira lerro lodiz markatuta. Beraz, gaur egungo Olalde, Olazarraga, Legoiaga, Baltzola..., Endoia eta Arroa osoa Itziar-Debako lurak ziren, eta

6.14. irudia. Bedamako Errotabarrenaren aurriak.



1852. urtean hasi ziren Zestoako parte izaten (irudian lerro etenaz markatu dira)<sup>44</sup>.

Lilitik Goltzibar aldeko erreketaraino eta Urdano-laetaraino joan zirela esaten da. Azken leku-izen honek urde edo txerriak garai hartako Zestoako ekonomian garrantzia zuela esan nahiko luke. Gainera, 1380. urteko Zestoako agirietan (ikus [XIV. m. 3] eta [XIV. m. 4] agiriak) ere zestoarren urde taldeak aipatzen dira<sup>1</sup>.

### 6.6.3. Beste zenbait

1385ean Lisboa setiatzeari ekin zioten berriz. Bizkai-ko eta Gipuzkoako itsasontziak ibili ziren langintza hartan<sup>16</sup>.

1385. urtea zorigaiztokoa izan zen, ordea, Gaztelako Joan I.a erregearen tropentzat. Abuztuaren 14an Portugalgo Aljubarrota hiribilduan, Leiria eta Alcobaca herrien artean, bataila galdu egin zuten Portugalgo Joan I.a erregearen indarren aurka. Pero Gonzalez Mendozakoa bertan hil zen<sup>16</sup>. Han parte hartutako beste bat Pedro II.a Belez Gebarakoa zen, Oñatiko Beltran III.a Belez Gebarakoa jaunaren semea eta

Pero Lopez Aiarakoa kantzeleriaren iloba<sup>45</sup>.

Beltran III.a Belez Gebarakoa Gaztelako Joan I.a erregearen 1385eko agiri batean lekuko gisa sinatzailerazaltzen da, eta Nafarroako Karlos II.a erregeari emateko hiribilduak eta gazteluak zituen<sup>22</sup>.

Nafarroako Karlos II.a erregeak ateratzen zuen diruak haren agintaldiko balio-galera handiena izan zuen 1385ean. 1380. urteko liberak 1350. urtekoaren erdia balio zuen, eta 1385ekoak herena besterik ez. Hala ere, Nafarroako erregeak 1385. urtean 30.000 liberako irabaziak izan zituen, inoizko handienak<sup>46</sup>.

1385. urtean Iruñeko apezpikua, Martin Zalba, Avignonen zen Aita Santuaren ondoan, eta Klemente VII.aren agindik bulda lortu zuen Iruñeko elizbarrutia Zaragozako artzapezpikuaren mendetik atera eta zuzenean Aita Santuaren mende gera zedin<sup>12</sup>.

Gipuzkoan 1385-VIII-4ko agiri baten bidez Tolosako hiribilduak babespean hartu zituen Irura eta Amasako kolazioak<sup>47</sup>. Urretxuko hiribilduak, berriz, “Ezquiaga” (Ezkio) hartu zuen bere babespean<sup>2</sup>.

## 6.7. 1386. URTEA

### 6.7.1. Lancasterko dukea, eta Nafarroako izurritea

Urte hartan Gipuzkoako zenbait herri beste hiribildu batzuen jurisdikziopera etorri ziren. Aduna, Alkiza eta Asteasu Tolosara bildu ziren, baina denbora gutxi-rako izan zen. Urretxuren jurisdikziora, berriz, Ezkio eta Zumarraga etorri ziren<sup>2</sup>.

Urte hartan Joan Gante, Lancasterko dukea, bere tropekin Galizian lehorreratu zen. Gaztelako Pedro I.a errege zenaren Konstantza alaba emazte zuelako, Gaztelako erreinua berari zegokiola zioen. Dukearen aurka ibilitako bat Beltran III.a Belez Gebarakoa izan zen<sup>22</sup>. Itsasoan eta lehorrean izan zituzten borrokak.

Soldadu ingelesek izurritea izan zuten, ordea<sup>16</sup>.

Nafarroan Pirinioetan, Erronkaritik Gipuzkoaraino, burdin meatzeak zeuden, eta urte hartan 4.000 kintal atera zituzten. Karlos II.a erregearentzat diru-iturri oparoa zen<sup>13</sup>. Dena den, Nafarroako erregea kexu zen 1386an izurriteen eraginez jende asko hil zelako. Tuteran, adibidez, 500 juduk ordaindu ohi zuten zerga, baina 1386an 200 baino ez ziren ordaintzaileak<sup>17</sup>.

## 6.8. 1387. URTEA

### 6.8.1. Ordiziako Batzar Nagusiak

1387-VIII-18an, Ordizian, Maria Martinez Itsasondokoaren sagastian honako hiribilduetako prokuradoreak elkartu ziren: Ordizia, Tolosa, Segura, Azpeitia, Bergara, Hernani, Eibar eta Urretxukoak. Hauekin batera ziren Aiztondo eta Aleriako Alkatetzeko prokuradoreak ere. Batzar Nagusi haietara ez ziren joan Gipuzkoako hiribildu guztiak; ez eta Gipuzkoako merio nagusia eta alkate nagusia ere. Ordiziako alkatea zen Batzarreko buru, eta bertako Otxoa Martinez Barrenakoak idatzi zuen Batzar Nagusietako akta.

Prokuradoreak elkartu eta Ermandadea sortzea zen helburua, lurraldean bakea bermatzearren. Gipuzkoako edo beste nonbaiteko jauntxoei aurka egin nahi zieten. Defentsarako Ermandadean sortzen ziren gas-

tuak sukaldekako sistemaz banatuko ziren. Ermandade hura, 1387. urtean sortutakoa, Gipuzkoako zati batena zen, Nafarroarekin muga egiten zuten edo muga ondoan zeuden hiribildu eta Alkatetza Nagusiena<sup>48</sup>. (Bide batez esan dezagun urte hartako lehen egunean, 1387-I-1ean, Nafarroako Karlos II.a erregea hil egin zela, eta seme Karlos III.ak hartu zuela erreinua oinordetzan)<sup>13</sup>.

Ordiziako Batzar Nagusietan aipatutako hiribilduez gain beste bat ere bazen, baina agiria hautsita dagoelako ez dago jakiterik zein zen. Alkatetza Nagusiek, Hernanik eta Eibarrek prokuradore bana bidali zuten, eta gainerako hiribilduek bina. Ituna betetzen ez zuen alderdiak 20.000 marai ordaindu beharko zituen, erdia erregearentzat eta beste erdia kontratua zuzen bete zuen alderdiarentzat<sup>49</sup>.

6.15. irudia.  
Ordiziako udaletxea.



Ermandadearen helburua bakea segurtatzea zenez gero, laguntza eman zien urte hartan ganboatari Bizkaiko Atxondoko Martzaako etxeari erasotzen<sup>50</sup>. Oinetxea erre eta bota egin zuten. Otxoa Martinez Martzakoak auzitara jo zuen, baina auzia asko luzatu zen<sup>52</sup>. Joan Beltran I.a Iraeta zen erasotzaileetako bat.

### 6.8.2. Zestoako alkatearen lanak

Lehen ere esana dugunez, hiribilduko alkatearen eginkizunetako bat lehen auzialdiko epaile izatearena zen. Zestoako alkateek ere bazituzten auziak, baina zalantzak izaten zituzten. Beraz, inguruko herrietako abokatuengana jo behar izaten zuten iritzi eske. Horretarako, ordea, gastua egiten zuen alkateak, eta kostu hura kobratu ezinik ibiltzen zen, auzilariak ordaindu nahi ez ziotelako. Orduan Zestoako Kontzejukoak erregearengana jo zuten Joan Martinez Amilibikoa prokuradorearen bidez. Hark gure “Agiritegia” ataleko [XIV. m. 10] eta [XIV. m. 11] agiriak idatzarazi zituen.

Zestoako alkateak abokatuei kontsultak egiteko sortzen ziren gastuak auzilariei kobratu ahal izango zizkien. Dena den, gastuak zehazteko fama oneko bi gizon izendatuko ziren, eta haiek, zin egin ondoren, zenbat kobratu behar zuen erabakiko zuten.

### 6.8.3. Elizetako patronatuak

Ahaide Nagusiek garai hartan indar handia zuten, eta, erregeak bezalaxe, elizetako patronatua aspaldiaspalditik zegokien eskubidea zela zioten. Beste era

batera esanda, elizako hamarrenak kobratzen zituzten. Gainera, apezpikuari elizako apaiz nor izango zen (gehienetan herritarren bat) proposatzen zioten, eta hark aurkeztutakoa izendatu ohi zuen. Erregeak ere, hiribildua egiteko hiri-gutuna ematen zuenean, han eraikiko zen elizaren patronatua beretzat hartzen zuen, edo, bestela, norbaiti edo norbaitzuei ematen zien.

Sistema hura Elizaren lurralde gehienetan gaindituta zegoen ordurako, eta Iruñeko elizbarrutiaren leku gehienetan ere bai. Hala ere, Gipuzkoan (artzapez-barrutian) indarrean zegoen artean, eta gatazka latzak sortu ziren Martin Zalba apezpikuaren garaian.

Azpeitian (1310. urtean sortutako hiribilduan) zegoen Soreasuko monasterioaren patronatua erregeak herritarren esku utzi zuen, San Martin egunez erregeari diru kopuru bat ordaintzearen truke. Horrela garbi geratzen zen eskubidea erregearen bidez erabiltzen zutela. Herritarrek jasotzen zituzten hamarrenak, eta herritarrek aurkeztuko zituzten apaizak (herriko gizonak) apezpikuak izenda zitzen.

Dena den, 1387. urtean elizako erretore Joan Perez hil egin zen, eta, dirudienez, herritarrei iritzirik eskatu gabe, apezpikuak Pelegrin Gomez (edo Engomez) donostiarra (“Kanpoko Ofizial” zena) izendatu zuen Azpeitiko erretoretzako. Azpeitiarrak ez ziren ados, eta mila oztopo ipini zioten erretore berriari, hura parrokia ez eta errege-monasterioa zela argudiatuz, baina Pelegrin donostiarrak Avignongo Aita Santuaren epaitegira jo zuen<sup>11</sup>.

## 6.9. 1388. URTEA

### 6.9.1. Oñati eta inguruko jauntxoak

1388. urtean Pelerin Engomez donostiarrak Avignongo Klemente VII.a aita santuarengandik agiri bat lortu zuen. Hango epaitegiak auzian azpeitiarrei arrazoi ematen ez bazien, Pelerin Engomez izango zen Azpeitiko erretore<sup>11</sup>.

Bitartean, Joan Karlos Gerraren iritziz 1388-1401 urte bitartean, Oñatiko hiribilduaren eta Leintz bailarako biztanleen artean gatazka sortu zen. Haien arteko konponduzinak elkarren aurka gerra eginez erabakiko zituzten. Leinzko lau leinuetako jendea elkartu zen alde batetik, eta, bestetik, Garibai eta Uribarri leinuetako jendea. Urrexola gaina izeneko

lekuan egin zuten borroka. Talde bakoitzaren mugak, larreak, etab. nondik norainokoak ziren erabakitzearen. Oñatiarren buru Pedro Garibai eta Joan Ibañez Elazarragakoa ziren. Leintz ibarrekoak, berriz, Galar-tza etxekoan gidaritzapean zihoazen.

Gudua oñatiarrek irabazi zuten. Pedro Garibai, ordea, zauritu egin zen, eta handik egun gutxi barru hil egin zen, kanta bat kantatzen zuela. Gero, 1588. urte inguruan, Joan Perez Lazarragakoak idatziz eman zuen gertaera hura eta han sortutako kanta:

“Gaiçaçenduan lenizanos Urruxolaco lecaya  
sendo cenduan odolori biurtu jaçu gazayoa”

K. Mitxelenak proposatzen duen bertsoa hau da:

“Gayça çenduan leinztarroc Urruxolaco lecaya,  
Sendo cenduan odolori biurtu jaçu gaçatua”<sup>52</sup>

1388. urtean Oñatiko kapareak altxatu egin ziren Beltran III.a Belez Gebarakoaren eta honen seme Pedro II.a Belez Gebarakoaren aurka. Kexu ziren Oñatiko jaunaren kontra zerga handiegiak indarrez ordainarazten zizkietelako, ondasunak kentzen zizkietelako eta laidotu egiten zituztelako. Kaparetasuna errespetatzen ez bazieten, erregearengana joko zuten.

Gebaratarrek beren erantzuna eta argudioak eman zizkieten. Oñati aldera gaizkileak harrapatzeko asmoz etorri zirenean bertako jendeak ez omen zien informaziorik eman. Harro erantzuten omen zieten, gainera, Oñati ez zela jaurerria, abade-lurra baizik. Gebaratarrentzat oñatiarrak traidoreak ziren, bertako jauntzat hartzen ez zituztelako. Gebaratarren arbaso guztiak izan ziren lurraldean jaiotako guztien jaun.

Zerga handiegi buruz, gebaratarrek ziotenez, arbasoek beren garaian eskatutakoak baino ez zizkieten ordainarazten. Bestalde, jende armatuarekin Oñati-tira etorri baziren, konderrian babesten ziren gaizkileak harrapatzeko izan zen, eta horretarako eskabidea Nafarroa, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako zenbait pertsonak egin zuen; baita errege-epaileek eta Gipuzkoako Ermandadeak ere.

Oñatiko jaunak dei egin zien Oñatiko biztanleei San Migelen monasterioan harengana joan zitezen. Beltran III.a Belez Gebarakoa egun osoan egon zen elizan oñatiarren zain, baina ez zitzaion inor aurkeztu. Aitzitik, armatu egin ziren Oñatiko biztanleak, eta kofradiak sortu zituzten gebaratarren aurka elkarri laguntzeko.

6.16. irudia. Oñatiko San Migel eliza.



Orduan gebaratarrek matxinatutzat hartu zituzten eta “Zuzenbidearen arabera” bahiketak egin zituzten. Oñati abade-lur zenik ukatu egin zuten; izan ere, beti izan zen konderrri eta jaurerri.

Matxinoek Beltran jaunari honako hau jakinarazi zioten: haren mendetik irten eta inolako nagusitasunik ez ziotela aitortzen. Oñatiko jaunak, ordea, eskribau bidez jakinarazi zien ezin zutela horrelakorik egin, arrazoirik ez zutelako eta Zuzenbideak onartzen ez zuelako<sup>2</sup>.

Urte hartantxe, 1388.ean, Gaztelako Joan I.a erregeak tregoa edo menia ezarri zien Lazkaoko Migel Lopez jaunari eta honen senide oñazarrei<sup>27</sup>.

Oñatitik urrun samar bada ere, Orreagak Gipuzkoan bazituen ondasunak. Zumaia eta ingurukoak behin

baino gehiagotan aipatu ditugu, baina horrez gain Usurbil eta Aia aldeko Andatza eta Iria mendietan ere bazituen. 1388-IV-7an Orreagako Andre Mariaren ospitaleko Migel Tabar prioreak eta Martin Gonzalez Aitzagakoak (Atxagakoak) ituna sinatu zuten Gipuzkoako Andatza eta Iria mendiak ustiatzeko baldintzak ezarriz. Orreaga izango zen “Artsuondotik” Oria ibairaino Andatzaren jabea, han abereak hazteko eta handik egurra ateratzeko. Ganaduen hamarrenak osorik jasoko zituen Orreagak, Atxagako etxeak edo Usurbilgo Salbatoreren parrokiak inola ere parte hartu gabe. Ordainetan, Atxagako etxeak Orreagak Andatzan saldutako egurratiko sarreraren seirena jasoko zuen, eta Iriako lurren gozamen-eskubidea izango zuen<sup>9</sup>.

## 6.10. 1389. URTEA

### 6.10.1. Oñatiko jaunaren epaia, eta Joan Beltran Iraeta

1389-VII-7an, aurreko atalean apaitu eta Oñatin izandako altxamenduaren amaiera gisa, Beltran III.a Belez Gebarakoak, Oñatiko jaunak, epaia argitaratu zuen. Jauntxo gebaratarren haserrea baretzen zenbait pertsona saiatu omen ziren: Mentzia Aiarakoa emaztea, Isabel Gaztelakoa erraina, Joan Lopez Ganboakoa (Olasoko jauna) eta beste zenbait zaldun. Matxinatuekin errukitsu joka zezala eskatu zioten.

Altxatutakoek ere onartu zuten beren errua, eta belauniko jarri zitzaizkien beren emazte eta seme-alabekin oihuka barkamen eske. Beltran jaunak barkatu egin zien, baina altxamenduko buruzagi nagusiei ez. Haiek Oñatiko lurretatik erbesteratzea agindu zuen. Etxeak erre egin zizkien, eta sagastiak bota<sup>2</sup>.

Argitu beharra dago garai hartan Oñatiko jaurerria ez zela Gipuzkoako parte. Gipuzkoan 1399. urtean,

aurrekoetan bezalaxe, Pero Lopez Aiarakoa zen korrejidore eta merio nagusi<sup>27</sup>.

Zenbait historialarik Joan Beltran I.a Iraetako Ahaide Nagusia aipatzen dute. Iraetako maiorazkoaren jabe zen, Santxaren aita, hau da, Joan Perez Loiolakoa jaunaren emaztearen aita<sup>54</sup>. Joan Beltran Iraetaren emaztea Otxanda Martinez zen. Joan Beltran II.a semea Usurbilgo Atxagara ezkondu zen. Joan Beltran I.a eta Otxandaren beste seme bat Martin Saez semea zen, Zarautzen ezkondu eta Iraetako oinordeko izan zen. Maria Ortiz alaba Fernando Ganboarekin ezkondu zen<sup>26</sup>.

1389ko urte hartan, Joan Beltran I.a Iraetak ituna egin zuen Zestoako Kontzejuarekin eta Aizarnako parrokiakoekin Aizarnako elizako patronatuaz, apaizak aurkezteko eskubideaz eta hamarrenak eramateko eskubideaz<sup>1</sup>. Jose Luis Orella historialariak 1389-V-17an Zestoan egindako agiri bat aipatzen du<sup>41</sup>. Bertan dioenez, Joan Martinez Eizagirrekoa eskribauaren

aurrean Zestoako hiribilduko Kontzejuak Aizarnako elizaren hamarrenak Iraetako etxearen esku utzi zituen, Joan Beltran I.aren eta hurrengo bi oinordekoen biziadira.

1440. urte inguruko agiri batean (ikus [XV. m. 12] agiria) aipatzen da Zestoako Kontzejuak eta Iraetako etxearekin Aizarnako hamarrenei buruz 1389. urtean ituna sinatu zuela.

Bestalde, [XIV. m. 16] agirian zehatz-mehatz ikusten da Gaztelako Enrike III.a erregeak urte batzuk geroago, 1394-I-7an, Aizarnazabalgo (baina ez Aizarnako) elizako patronatua Joan Beltranen esku utzi zuela. Askoz geroagoko beste agiri bat ere bada (1467-VI-24koa), non Enrike IV.a erregeak beste Joan Beltran Iraeta bati (Joan Beltran III.ari) Zestoa, Aizarna, Aizarnazabal eta Oikiako elizetako patronatuak, aita Fortun Santxezengandik jasota, berretsi egin baitzizkion (ikus [XV. m. 33] agiria).

1389. urtean agertzen zaigun Joan Beltran Iraeta hau 1363. eta 1380. urteetan ere azaldu zaiguna edo Joan Beltran I.a da gure ustetan; pertsona bera, alegia.

## 6.11. 1390. URTEA

### 6.11.1. Urretxuko Batzarra

Gipuzkoako Ermandade zabalagoa lortzeko bidean aurrerapausoa izan zen 1390ko abuztuaren 12an ospatu zen Batzarra. Urretxuk, alkate eta zinegotziak hautatzeko zituen gorabeherak konpontzeko, arbitrajera jo zuen. Zumarraga, Ezkio eta Gabiria Urretxuko auzotar ziren orduan, eta bertako jauntxoaren arteko interesak zirela medio, gatazkak zituzten alkatea eta zinegotziak hautatzerakoan. Batzartutako hiribilduek beretzat hartu zuten Urretxun handik aurrera izango ziren Kontzejuari buruzko auziak ebazteko ahalmena. Beste inorengana ez ziren joango, eta, are gutxiago, inguruko zaldun, ezkutari edo bandotan sartuta zegoen edonorengana<sup>57</sup>.

### 6.10.2. Orreaga Gipuzkoan

Zizurkilgo herriaren eta Orreagako komentuaren artean auzia zegoen Andatzako eremuaren jabetzari buruz. 1389-XI-6an horretarako ipinitako arbitroek epaia argitaratu zuten. Andatzako leku batzuetako mugarri eta mugak behin betiko kentzea agindu zuten epaian. Gero mugarri berriak behin betiko non ipini behar ziren agindu zuten, eta zizurkildarrentzat zein lurralde izango ziren ere bai.

Kontuan hartu behar da garai hartan monasterioekin lan handia egin zutela lursailak arautzen eta hobeto ustiatzen. Lurraldea antolatzen zuten<sup>54</sup>.

Orreagako komentuak Oiartzungo Ugarteko jaunarekin ere egin zuen hitzarmena 1389-IX-12an Orreagak Urumearen ondoan Oiartzundik gertu zituen saroi eta kamainen erabilpenari buruz. Ugarteko etxeak sarbidea utzi zien Orreagakoei.

Urretxun bildutako prokuradoreen bizilekua hiribildu eta Alkatetza hauek ziren: Donostia, Hernani, Usurbil, Arrasate, Leintz Gatzaga, Elgeta, Tolosa, Segura, Aleriako Alkatetza, Urretxu, Getaria, Mutriku, Deba, Azkoitia, Elgoibar, Azpeitia, Soraluze, Eibar, Zarautz, Zumaia, Saiazko Alkatetza, Aiztondoko Alkatetza eta Oiartzun.

Prokuradore haiek epaile eta arbitrotzat hartu zituzten Urretxuko alkateak, zinegotziek, “fielek” eta hiribilduko bandoetakoek, Zumarragan 1390-VIII-12an sinatutako agiriaren bidez.

Izendaturiko epaileek Urretxuko alkatea eta hiru zinegotziak hautatzeko prozedura erabaki zuten.

Zinegotzi bat Urretxukoa izango zen, beste bat Zumarragakoa eta hirugarrena Ezkiokoa. Hiru “fiel” izango zituzten. Kontzejuak kutxa edukiko zuen, eta jurisdikzioa Gipuzkoako Ermandadeak izango zuen bere Batzarren bidez edo Ermandade berak emandako epai lasterragoaren bidez.

Dena den, Urretxuko epaileen erabakiari buruzko zalantzak epaile haiek edo Gipuzkoako Ermandadeak argituko zituen.

Urretxun batzartutakoek bazekiten Gipuzkoako Ermandadeak ohiko batzarrak eta ohizkanpokoak



6.17. irudia.  
Urretxuko udaletxea.

Kontzejuak bere diruak nola kobratuko zituen ere erabaki zuten.

Urretxurentzat emandako epaia ikusita, zenbait ondorio atera daiteke. Batetik, Batzarrean ez ziren Gipuzkoa osoko prokuradoreak, eta ez ziren Gipuzkoako Ermandadearen ordezkari gisa joan, nahiz eta Ermandade haren berri bazuten. Gainera hautatu zituzten epaile eta arbitro haiek Gipuzkoako hiribildu, alkatetza nagusi eta herrixkak ordezkatu nahi zituzten.

Epaileen erabakiaren azken sostengua erregeak onestea izango zen. Epaile haiek baino lehenago beste batzuek emandako epaien berri ere bazuten.

egiten zituela, eta Ermandadeak “erregearen aseguru” zuela<sup>48</sup>.

### 6.11.2. Ahaide Nagusiak borrokan

XVI. mendearen erdialdean Iburguen eta Cacho-pin jaunek beren “Cronica” famatua idatzi zuten. Haiek ziotenez, 1390. urtean Eibarko Arrate eta Kalamua arteko Akondiako muinoan izan zen oñaztarren eta ganboatarren arteko bataila<sup>57</sup>. Alde batean Joan Lopez Ganboakoa eta Durangoko ibarguendarrak zeuden. Baita Gomez Gontzalez Butroekoa “Zaharra” ere. Beste aldean, berriz, Untzuetako jendea zegoen (oñaztarrak, alegia).

Borroka gogorra izan zen, eta ganboatarrak gal-tzaile suertatu ziren. Iburgendarren nagusi zen Joan anaia hil egin zen, eta beste asko ere bai. Elikagaiz betetako eltzeak, armak, artilleria, mandoak eta hiru asteme bertan utzita ihes egin zuten. Horregatik dio Akondiako kanta zaharrak: “Acundia, lejarr[...]ga lejarbaga” (edo, “Akundia, lexarraga lexa baga”).

Kontuan hartu behar da lexa edo lizarra armak egiteko zurik preziatuena zela<sup>52</sup>.

Zestoako handikiei dagokienez, 1390. urtekoak dira Liliko familiari buruz ditugun lehen albistek. Martin Diaz Lilikoa Teresa Irarrazabalekin ezkondu-ta azaltzen da Luis Miguel Díez de Salazarren arabe-ra<sup>58</sup>. Egia esan, ez dakigu albistea zein agiritan oina-rritutakoa den.

### 6.11.3. Orreaga, Zumaia, Deba

Zumaiako eta Debako Kontzejuek auzia zuten beren lurren mugei buruz eta Orreagarenak ziren lur, etxe, mendi eta saroiak ustiatzeko eskubideei buruz. 1390-XI-28an San Pedro elizan Zumaiako Kontzejua bildu zen, eta ahalordea eman zien Joan Perez Ezurikoa alkateari eta Beltran Ibañez Arteagakoari Debarekin eta Itziarrekin zuten auzian prokuradore izan zitezen. Arbitroak aukeratuko zituzten, eta hauek beren epaia hurrengo urteko martxoaren lehenerako jakinarazi behar zuten<sup>2</sup>.

Bi egun geroago, 1390-XI-30ean, Andre Mariaren elizan Debako Kontzejua, Itziaroko ordezkariak eta Zumaiako prokuradoreak (Fernando Ibañez Zumaia-koa eta honen Lope Fernandez semea ere bertan zire-la) bildu egin ziren. Elkarrekin zuten auzia ebazteko hiru arbitro hautatu zituzten: Gartzia Perez Ormaizte-gikoa (Mutrikuko bikarioa), Joan Perez Ierategikoa (Donostiako auzotarra) eta Otxoa Martinez Iribekoa azkoitiarra. Hurrengo urteko martxoaren lehenerako epaia argitaratu egin behar zuten arbitroek. Orrea-ga eta Zumaia alde batetik, eta Deba-Itziar, bestetik, ordura arte konpondu ezinik ibili ziren. Arbitroek emandako epaia denek beteko zuten. Bestela Gaztela-

ko urrezko bina dukateko bi mila txanpon ordaindu-ko zituen erabakia betetzen ez zuen aldeak<sup>29</sup>.

### 6.11.4. Apezpikuen eskubideak

1390. urtea garrantzitsua izan zen Nafarroako politi-kan. Lehenik eta behin, 1390-II-6an Nafarroako erreinuak Avignongo Klemente VII.a onartu zuen Aita Santutzat. Horretarako egin zen elizkizunean Iruñeko katedralera hainbat apezpiku bildu zen: Iru-ñekoa (Martin Zalba), Baionakoa, Akizekoa, Kalago-rrikoa, Tarazonakoa, Ampurieskoa, etab. Pedro Luna kardinala ere hantxe zen. Mezaren amaieran erregea-ren agiria irakurri zen, non Klementerekiko atxiki-menduaren berri eman baitzen.

1390-II-13an Nafarroako Karlos III.a errege koro-atu zuten. Iruñeko katedraleko zeremoniara jende ospetsua joan zen: Pedro Luna kardinala, Zalba apez-pikua, Tarazonako Pedro apezpikua, Akizeko Joan Bauffes apezpikua, Kalagorriko Joan apezpikua, etab. Karlos III.ak zin egin zuen, erromantzez, erreinuko usadio, foru, ohitura eta askatasunak gordetzea. Ezkutu gainean altxatu zuten, eta denek hirutan oi-hu egin zuten: “real, real, real”. Ezkutu gainetik errege berriak txanponak bota zituen alde guztietara.

Errege izendatu eta laster, Karlos III.ak mandata-riak bidali zizkion Avignongo Klemente VII.a aita santuari. Besteak beste, Iruñeko Martin Zalba apez-pikua kardinal izenda zezala eskatu zioten. 1390-IX-25ean ezarri zioten Martin Zalbari kardinal-kapelua Iruñeko katedralean. Hura izan zen lehen kardinal nafarra<sup>12</sup>.

Martin Zalbak arazo latza zuen Iruñeko elizbarru-tikoak ziren Gipuzkoako elizekin. Nafarroako elize-tan apezpikuak izendatzen zituen erretoreak eta apaiz-ak, baina Gipuzkoan elizetako patronatua zutenek (bertako hamarrenak jasotzen zituztenek) aurkezten zioten zein apaiz izendatu behar zuen. Iruñeko apez-pikuak neurriak hartu zituen egoera hura gainditzeko, baina Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko aitonen semeek Guadalajaran bildutako Gaztelako Gortetan aurka

egin zioten. Haiek ziotenez, Gaztela eta Leongo erregeek hamarrenak jasotzen zituzten, eta Aita Santuak ez zuen inoiz ere aurka egin. Gainera, zioten, Gipuzkoa lehen Nafarroako erreinuko zati izan zen. Orain hamarrenak beretzat hartu eta gero Nafarroako erregearen mendekoei eman nahiko zizkien, baina horrela lurraldea Gaztelako erregeak galdu egingo zukeen.

Gipuzkoa, Araba, eta Bizkaiko zaldunek argudio politikoa erabili zuten beren interesak defendatzeko,

baina Martin Zalba apezpikuaren asmoak ez ziren zaldunek aipatutakoak, noski. Izan ere, urte hartan bertan, 1390ean, Donostiako Altzan parrokia izango ez zen zurezko kapera eraikitzeko baimena eman zuen. Altzatarrek, izan ere, legoa bat ibili behar izaten zuten hiribilduraino elizkizunetara joatearren. Kaperan meza emango zuen apaizak, baina San Sebastianen parrokiako benefiziadua izan behar zuen meza-emaileak. Gainera, Pazkoa egunean, Eguberri egunean, Mendekoste egunean eta beste zenbait egun nagusitan parrokiara joan beharko zuten<sup>11</sup>.



6.18. irudia. Zumaia herria.

## 6.12. SEIGARREN KAPITULUKO OHARRAK

<sup>1</sup> AIERBE IRIBAR, R. M. eta ELORTZA MAIZTEGI, J. Archivo Municipal de Zestoa (1338-1520). Fuentes documentales medievales del País Vasco. 136. alea. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2008. (7-13, 15, 16, 18, 149-151, 253. or.).

<sup>2</sup> MARTINEZ DIEZ, G. eta beste. Colección de Documentos Medievales de las Villas Guipuzcoanas (1370-1397). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1996. (164, 165, 175, 176, 180-182, 185-237, 242, 243, 245, 246-248, 260-266, 269-271, 312-319. or.).

<sup>3</sup> AZKUNE MENDIA, I. *Zestoa hiribildu izan baino lehenagoko bi agiri*, in Zestoa. Herri Jaiak 2001. Zestoa, 2001. (1-5. or.).

<sup>4</sup> BARRENA OSORO, E. *La carta puebla de Zumaia: la sociedad que trasluce el texto*, in Zumaia 650 urte. Hitzaldiak. Zumaia, 1999. (24. or., 50. oharra).

<sup>5</sup> MUJIKA, L. M. Euskal toponimiazko materialak. XI. alea. Bidania, Goiatz, Errezil, Zestoa, Aizarnazabal. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1989. (309, 360. or.).

<sup>6</sup> XX. Contribución Territorial: Amillaramiento de Rústica y Pecuaria. Partido Judicial de Azpeitia. Distrito Municipal de Cestona. 1951. urtea. (259, 2).

<sup>7</sup> 2009-II-6an Etorrazar baserrian bertako Jose Luis Alberdi Zubieta (1946-VIII-17an jaioa) jaunarekin, honen suhia eta Joan Mari Aranberri Eizagirre laguna ere bertan zirela, solasaldia izan genuen. Jose Luis jaunak zioenez, gurasoengandik entzunda zekien garai batean Gallari (Gallegi) eta Aitola baserriak baino ez zeudela inguru haietan, eta bien tartean Etorrako baserria egin zutela. Orduan beldur omen ziren Gallarikoak eta Aitolakoak, denen ganaduentzat nahikoa larre izango ez zutelakoan. Albisteak dioena, berez, 1380. urtea baino lehenagokoa da; izan ere, [XIV. m. 3] agirian Fernando Etorra azaltzen da.

<sup>8</sup> MARTINEZ DIEZ, G. eta beste. Colección de Documentos Medievales de las Villas Guipuzcoanas (1200-1369). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1991. (315. or.).

<sup>9</sup> LEMA, J. A. eta beste. Los señores de la guerra y de la tierra: nuevos textos para el estudio de los Parientes Mayores guipuzcoanos (1265-1548). Iturriak, 2. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2000. (50-51, 54, 218-222. or.).

<sup>10</sup> XX. Arantzazuko Amaren egutegia, 2008-V-23.

<sup>11</sup> ZUNTZUNEGI, J. El Reino de Navarra y su obispado de Pamplona durante la primera época del Cisma de Occidente. Pontificado de Clemente VII de Aviñon (1378-1394). Pax argit. Donostia, 1942. (37-40, 160, 161, 185, 186-188, 190-193, 349-351. or.).

<sup>12</sup> GOÑI GAZTANBIDE, J. Historia de los obispos de Pamplona. s. XIV-XV. II. alea. Iruñea, 1979. (269, 285-290, 292, 295, 300, 307-320. or.).

<sup>13</sup> LACARRA, J. M. Historia política del Reino de Navarra. III. alea. Nafarroako Aurrezki Kutxa. Aranzadi argit. Iruñea, 1973. (137, 144, 146, 147, 149, 155, 194, 209. or.).

<sup>14</sup> TENA GARCIA, M. S. La sociedad en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500). Donostia, 1997. (250. or.).

<sup>15</sup> AROZENA, F. Guipúzcoa en la historia. Minotauro argit. Madril, 1964. (109. or.).

<sup>16</sup> LABAIRU GOIKOETXEA, E. Historia General del Señorío de Bizcaya. II. alea. Biblioteca de La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo, 1968. (443, 444, 454, 455, 460, 461, 471. or.).

<sup>17</sup> YANGUAS MIRANDA, J. Diccionario de Antigüedades del Reino de Navarra. I. alea. Iruñea, 1840. (103, 715. or.).

<sup>18</sup> ZALDUA ETXABE, L. M. Saroeak Urnietan. Urnieta, 1996. (20-25, 31, 32, 37, 42, 43, 45, 87. or.).

<sup>19</sup> BANUS AGIRRE, J. L. El Fuero de San Sebastián. Donostiako Udala. Donostia, 1963. (7. or.).

<sup>20</sup> VILLARREAL de BERRIZ, P. B. Máquinas hidráulicas y ferrerías. 1736. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones argit. Donostia, 1973. (123. or.).

<sup>21</sup> AIERBE IRIBAR, R. M. Servicio Forestal de Gipuzkoa. 1.- Desde los orígenes a 1925. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2005. (72-76. or.).

<sup>22</sup> AIERBE IRIBAR, R. M. Historia del condado de Oñate y señorío de los Guevara (s. XI-XVI). I. Estudio. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1985. (148, 149, 157, 367. or.).

<sup>23</sup> CARO BAROJA, J. Los vascos. Istmo argit. Madril, 1971. (164. or.).

<sup>24</sup> CARO BAROJA, J. Los pueblos del norte. Txertoa argit. Donostia, 1973. (178. or.).

<sup>25</sup> ODRIOZOLA OIARBIDE, L. Historia de Zumaia. Zumaiako Udala. Zumaia, 1998. (222. or.).

<sup>26</sup> ALDABALDETREKU, R. Debako Udallerria. Alderdi historikoak bertako dokumentuetan oinarriturik (1294-1894). Deba, 1996. (8, 271. or.).

<sup>27</sup> ORELLA, J. L. *Los orígenes de la Hermandad de Guipúzcoa (Las relaciones Guipúzcoa-Navarra en los siglos XIII-XIV)*, in Historia y Geografía, 3. Cuadernos de Sección. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1984. (65, 66, 68, 91. or.).

<sup>28</sup> ZABALO ZABALEGI, F. J. *El Reino de Navarra en la Baja Edad Media. Algunas consideraciones*, in

Historia del Pueblo Vasco, 1. Erein. Donostia, 1978. (147. or.).

<sup>29</sup> HERRERO, V. J. eta BARRENA, E. Archivo Municipal de Deba. (1181-1520). I. Fuentes documentales medievales del País Vasco. 123. alea. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2006. (34-37, 39-51. or.).

<sup>30</sup> TXUEKA ISASTI, F. *Getariako erregearen balea eta Donostiako probestua*, in LXIV-1-2008 buletina. Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte. Donostia, 2008. (112, 113, 144. or.).

<sup>31</sup> ORELLA UNZUE, J. L. Guipúzcoa y el Reino de Navarra en los siglos XIII-XV. Relaciones, intereses y delimitación de frontera. Mundaiz, 4. Donostia, 2001. (70. or.).

<sup>32</sup> ROLDAN GUAL, J. M. *Villas asiento de las Juntas Generales y Tribunal del Corregimiento de Guipúzcoa (hasta 1550)*, in Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (56, 58, 61, 66, 71, 72. or.).

<sup>33</sup> Horietako azterketa bat Zesareo Diaz Enparantza kaleko 4.enean egin zuten 2003an. Ikus Aranzadiana, Aranzadiko berriak 2003, 124. zk. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2003. (74. or.).

<sup>34</sup> ARIZAGA BOLONBURU, B. El nacimiento de las Villas guipuzcoanas en los siglos XIII y XIV: Morfología y funciones urbanas. Donostia, 1978. (37-48, 54, 55, 62-65, 78, 81-84, 93, 94, 106-115, 172, 173. or.).

<sup>35</sup> LEKUONA, M. *Zestona*, in Cuadernos de sección. Historia y Geografía, 3. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1984. (10-12, 16-18. or.).

<sup>36</sup> AZKUNE MENDIA, I. *Zestoako harresiak*, in Zestoa. Amabirjiñak 94. Zestoa, 1994. (1-5. or.).

<sup>37</sup> 2005-X-9an Manuela Ibarguren Kerexeta (1910/X/10-2006/X/16) andreari elkarrizketa egin genion, Zestoako San Joango egoitzan, oraingo Pio Baroja plazaren barrenean txikitan ezagutu zuen portaleaz zekiena jasotzearen. Orain Zestoa zutik dagoen Arretxe ondoko portalea baino handiagoa zen, eta goiko aldean gailur modura nitxo txiki bat zuen. Han Ama Birjina Sortzez Garbiaren zurezko estatuatxoa ipintzen zen. Arretxe ondoko harrizko portalean (oraindik zutik dagoen bakarrean) goiko nitxoan San Joseren irudia egoten zen. Hura harrizkoa zen.

Errepublikara garaian oraingo Pio Baroja plazatzoko portalea botatzea proposatu zuten, geltokirako bidea zabaltzeko. Lizarraitz (Lizarrarats) baserrikoak ere botatzearen alde azaldu ziren, gurdiak igarotzeko bide estuegia zegoela eta gari-jotzeko makina handik pasatzen (oraingo Pio Baroja plazatzora ekartzen zuten inguruko baserriek) gaizki ibiltzen zelako. Azkenean Portalea bota egin zuten.

Bota ondoren uda partean Arroabeko pintatzaile bat etorri zen, urtero bezala, bere bi makuluekin oraingo Pio Baroja plazara. Portalea kenduta ikusi zuenean kontrako iritzia eman zuen. Narkis Balentziaga pintatzaile famatu arroarra zen, inola ere.

Indalezio Oianguren eibartarrak portaleari bota aurretik ateratako argazkiaz ari ginela, Manuelak zioenez haien izekoren ahateak ziren hor agertzen direnak.

<sup>38</sup> XX. Autos instruidos a petición del rey y del Consejo de Castilla sobre la quema de la iglesia de la villa de Cestona y construcción de la nueva. (Zestoako Udal Artxiboa. Saila: Relaciones del Ayuntamiento. Nego-

ziatua: Relaciones con la iglesia. Sorta: Asuntos generales. Liburu-zk.: 2. Espediente-zk.: 1. 5. folioa).

<sup>39</sup> Gure gaztaroan Etxaluzearen jabe zen osaba Nikolas Mendia Iturraldeak aitortu zigunez, etxearen beheko oinean zuen aroztegian lixatzeko makina ipintzeko lurra hondeatu egin zuen, eta “Gure Txokoa” etxeko atzealdeko hormaren jarraipen ziren zimenduak topatu zituen.

<sup>40</sup> Udalak neurriak hartu zituen, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultur Saileko Ondare Historikoaren Zerbitzuarekin koordinaziopean Arkeolan enpresak egin zuen azterlana, eta emaitzak 2005eko otsailean aditzera eman ziren. Balizko harresiaren zatia argazki bidez jaso, eta hormak ez zuela ondare-baliorik jakinarazi zuten. Harresiaren trazatua gutxi gorabehera nondik nora zen erakutsiko zuen. Ondorioz, horma zaharra bota eta etxe berria egin zuten.

<sup>41</sup> ORELLA UNZUE, J. L. Instituciones de Gipuzkoa y Oficiales Reales en la Provincia (1491-1530). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (110, 123. or.).

<sup>42</sup> ENRIQUEZ FERNANDEZ, J. eta beste. Colección documental del archivo municipal de Lequeitio. Tomo I. (1325-1474). Fuentes documentales medievales del País Vasco. 37. alea. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1992. (55. or.).

<sup>43</sup> GARCIA LARRAGETA, S. El Gran Priorado de Navarra de la Orden de San Juan de Jerusalem. Siglos XII-XIII. II. Iruñea, 1957. (102. or.).

<sup>44</sup> AZKUNE MENDIA, I. *Zestoaren lehen mugak*, in Zestoa. Herri Jaiak 2002.

<sup>45</sup> XX. *Guevara, Pedro Vélez de*, in Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Cuerpo A. Diccionario Enciclopédico Vasco. vol. XVII. Auñamendi argit. Donostia. (270. or.).

<sup>46</sup> ZABALO ZABALEGI, F. J. *El reino de Navarra en la Baja Edad Media. Algunas consideraciones*, in Historia del Pueblo Vasco, 1. Erein argit. Donostia, 1978. (145, 146. or.).

<sup>47</sup> XX. *750 urtean Tolosan*, in Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, 2006-IX-13.

<sup>48</sup> GOMEZ PIÑEIRO, F. J. eta beste. Historia de las Juntas Generales y Diputación Foral de Gipuzkoa. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1992. (24, 25, 26. or.).

<sup>49</sup> DIEZ DE SALAZAR, L. M. *La Hermandad de la tierra de Guipúzcoa de 1387*, in Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País. Donostia, 1982. (110, 111. or.).

<sup>50</sup> AROZENA, I. *Los Parientes Mayores y las guerras de bandos en Guipúzcoa y Vizcaya*, in Historia del Pueblo Vasco, 1. Erein argit. Donostia, 1978. (167. or.).

<sup>51</sup> LEMA PUEYO, J. A. “*Por los procuradores de los escuderos hijosdalgo*”: *de la Hermandad General a la formación de las Juntas de la Provincia de Guipúzcoa (siglos XIV-XVI)*, in El triunfo de las elites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539).

Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2002. (65. or.).

<sup>52</sup> MITXELENA, K. Textos arcáicos vascos. Minotauro argit. Madril, 1964. (69-73. or.).

<sup>53</sup> ERENTXUN ONZALO, J. Apuntes históricos de la villa de Santa Cruz de Cestona. Zarautz, 1948. (20. or.).

<sup>54</sup> MORA AFAN, J. K. Zizurkilgo Historia. Bailaratik hiribildura (1186-1615). Tolosaldea Historia Bilduma, 08. Zizurkil, 2005. (49, 51-55. or.).

<sup>55</sup> TENA GARCIA, M. S. La sociedad urbana en Guipuzcoa: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500). Donostia, 1997. (443. or.).

<sup>56</sup> LEMA, J. A. eta beste. El triunfo de las elites guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2002. (65, 66. or.).

<sup>57</sup> ONAINDIA, S. Euskal Literatura (I). Etor argit. Bilbo, 1972. (35. or.).

<sup>58</sup> DIEZ DE SALAZAR, L. M. Ferrerías guipuzcoanas. Aspectos socio-económicos, laborales y fiscales (siglos XIV-XVI). Donostia, 1997. (833. or.).

